

Jeruntzeko Üskara. Ekialdeko euskara

PHILIPPE ETXEGORRI*

1. AURKEZPENA

1.1. Jeruntzeko euskara

Bilduma labur honetan, Jeruntzen mintzatzen den euskararen ezaugarriarik nabarmenenak ematen entseatuko naiz.

Jeruntzeko euskara zuberera da. Jeruntze herria Biarnon bada ere (ikus hurrengo orrialdeen mapetan), Eskiularen alboan duen auzoa euskalduna da. Auzo honetako jendearen jatorria Eskiulan bertan dugu, jendea horko herri-tik aldapan behera emeki emeki “lerratu” ondoren, urteak iragan ahala. Eskiulako Etxegorri batek Jeruntzeko etxalde bat (Sallet de Haut, goiko Sallet) erosi zuen hemeretzigarren mendearen hastapenean, eta ordutik hona ene aiten aitak hor bizi izan dira. Eskiula ere Biarnon da. Ez omen zen larre bat baizik duela zenbait mende, eta jende zuberotarrak Biarnorekilako muga horretan eraiki zukeen.

Nire iturria familiarengandik hartu euskara da. Hala ere, nire gurasoen belaunaldia euskara galtzen hasi zen. Orduan, eman ditzakedan ezaugarriak aitzineko gizaldiaren euskararenak dira, hau da, 70 urte inguruz goitikoarenak.

Urte luzez aita gurearen osabarekin (Jean Mainhagü, Jeruntze) euskarazko gutunak partekatu ditut. Bera da, ondorioz, ene iturririk handiena. Amañiri (osabaren arreba, Louise, Jeruntze) apur bat zor diot, baina goiz eritu izanak bere parte hartzea mugatu du. Azkenean, zenbait ahaidek ere lagundu nau, hala nola Pierre Etxegorri (Jeruntze) eta Marie Garat (Eskiula) senar emazteek.

* Ingeniarria (ikus www.multimania.com/petxegorri).

Ez dezaket erran ematen ditudan argibideak oro errepresentagarriak direla, gehienak pertsona bakar batekoak izanik. Hala ere, beren zabaltzeak Jeruntzen mintzatzen edo mintzatua izan den euskara nolabait bizirauten laguntzea espero dut. Zoritxarrez, orain ia etxalde euskaldun guztiak hutsik dira.

Eskerrik beroenak Joha ne osabari zubereraren bidea niri erakusteagatik.

1.2. Eskiula eta bere inguruak

1.2.1. Herriak eta auzoak

Hurrengo orrialdeetako mapetan ikus daiteke non den azterturiko euskararen kokapen geografikoa.

Lurralde horren “bihotza” Eskiula herria da, zuberotar herria ... Zuberoatik kanpo, mendixka baten gainetik ezarririk bi erreken artean.

Lehen errekek (le Jos) Eskiula Barkoxetik eta Jeruntzetik bereizten du. Bigarrena (le Littos) Aramitze, Arhantze eta Inhazerekilako muga da. Bi erreken haranak euskaldunak dira, bena herrien arteko mugak errekek eginik direnez, erreken bazter bateko etxaldeak Eskiulan dira, eta beste bazterrekoak, aldiz, alboko herrikoak. Hortik datoz Jeruntze, Inhaze eta Aramitzeko auzo eskaldunak, baita Arhantzeko etxalde euskaldun bakarra ere!

Gero, Oloruerako bidean, “le Vert” erreken gaineko zubiak egiten du Eskiulako ekialdeko muga.

Jeruntze, Inhaze eta Aramitzeko euskaldunak eskiulakoak sentitzen dira, administrazioaren aldetik herri biarnes batekoak badira ere. Jende hau guztia batzen duena Eskiulako eliza da. Izan ere, guztiek katixima han ikasi dute, eta familiek orok badute beren hilobia Eskiulako hilerrian.

1.2.2. Eskiulako historia

Dirudienez, 15. mendera arte Eskiula eta bere inguruak ez ziren larre bat baizik. Euskaldunek Biarnoko lur horiek landu omen zituzten, eta herri bat eraiki. Jarraian ematen ditudan argibideak Eskiulako herriko etxean 2000.eko udan bildurik izan dira:

- 1385.ean: Eskiulako egungo eremua larre eta oihan zen. Biarnoko Ledeuix herriko jaunaren Ilassa etxaldearen jabegoa zen. Ilassa etxaldea Le Vert erreken ondoan kausitzen omen zen.
- 14. mendearen amaieran: Ledeuix-eko abadía Atharratzeko Sancho IV. jaun euskaldunaren jabego bilakatu zen. Bere semeak Lukuzeko amaren deitura eta armarriak hartu zituen.
- 15. mendeko hastapenean: Lukuzeko jaunak Zuberoako familien seme gazteenak Eskiulara etorrarazi zituen landu gabeko larren antolatzerara.
- 1444.etik - 1510.era arte: larreak landu zituztenak lurjabe, urteko zerga baten truke.
- 1456.ean: Mauleko jaunak Zuberoako mendietan bazkagia eskubidea eman zuen.
- 1465.ean: komunitate baten sortzea.
- 1470/11/27.ean: Eskiula lehen aldikotz idatzi ofizialetan aipaturik.

- 1510.ean: Lukuzeko Johañek Kanbilluko oihanetan eta mendian bazkagia eskubidea eman zien eskiularrei.
- 1545/03/25.ean: auzi baten ondorioz, Jeruntzeko Josbaig oihanean (Jeruntzeko auzo euskaldunean) bazkagia eskubidea gorde zuten eskiularrek, baina ez zezaketen hango egurra motz.
- 16. mendeko amaieran: Lukuzeko jaunak Eskiula galdu zuen Mespleseko Guicharnaud jaunari dirurik zor baitzion. Azken honetako Anchot semea Eskiulako jaun bilakatu zen.
- 1645.ean: Eskiulako eliza Barkoxekotik bereizi zen, burujabe bilakatu.
- 1796/01/23.ean: Barkoxeko kantonamenduan sartzeko erreferendumean baiezkoak irabazi zuen, Aramitzekoan ez sartzeko. Hala ere, 1816 inguruan Eskiula Sainte Marie-ko kantonamenduan sartu zen. Azken hau “Oloron Ouest” kantonamendua bilakatu zen.

1.2.3. Eskiula orain

2000. urteko pastoralaren liburuttoan atzeman artikulua honek ongi azaltzen du orain nola den Eskiula:

ESKIULA... EGÛN... 2000 URTEAN

Errana den bezala, ESKIULA, “Biarnoko barrendegi euskaldüna”, hirugerren milurtekoaren sargian, herri zohardi, bizitore eta goxoa da.

Bere 521 arimekin, berriz erakutsi gei dü zoin etxekirik den bere xiberotar erroer: 2000 urteko pastoralaren antolatzeari lotü da!

Kontseilü gaztea batarzünean ari da herriaren prestatzen, amoregatik eta hirugerren milurtekoan herria sar dadin karta honekin. Lehen arrenküra 2000 urte huntan, herriko hur erabilien sanotzeko xedearen betatzea dü.

Hebenko jentea, düala hogeï bat urte orano, laboraria beitzen haborroxea, langilegoalat igaraiten ari da geroago eta haboro. Eiki etxalteak itzaltzen ari dira bata bestearen ondotik. Ordariz etxeko seme hanitxek, langile beitera Olorue aldean, egoitza eijerrak eraikitzen dütüe etxondoko lürretan. Gainea alokatzeko egoitzen arraberritzea lagüntü beitätü kontseilü desbardinek, emendatüz joan da jentetzea.

Bi ikasgeletako eskola bat badago herrian, hogeita hamar bat haurrekin, eta lehen maileko ikasketak egiten dütüe hor baldintza hoberenetan.

Gazte-gazterik eskiularrek ikasten düe pelotakan, kantan eta dantzan kùltürako alkarteetan, lagüntzale trebeekin, erakasten beiteitze funtsezko jakintza ezbardinak, eta horier esker egiazko euskaldünak dirate, beren erroer etxekiak.

1998-ko üdalano bere erretore bazüan iruski ESKIULAK. Orai Xiberoko beste parropiekin partekatü behar dü.

Bestetako batzorde aisik batek urte oroz antolatzen dü lehiaketa maitagarri bat arrabotü zaharrean, eta süstut ohiko besta elibat, esküalde ttipitik eta departamentütik ere hürrün famatürik beitera.

ESKIULAN pintatürik dirade ofiziale trebe eta ezagütü zonbait, karrükünearen antolatzean parte hartzen dü prefosta, bena üngürünetan ere hedatzen dü beren ganoa.

Bi ostatü desbardinek (horrez maitagarriago beitera) deitzen dütü horko jaki berezien txestatzerä hürrüntik horra diren ahoxuriak.

Laborariak beren alkartzüna erakusten düe GUMA batetan jüntatüz, tresna orokor karioen alkarrekin erosteko. Merkatüetan arrakasta handia düe haien hazkuntzetako ekoizkinek, eta beraz aisa dira saltzen.

Erran dezagün gaineala ESKIULAK hanitx harreman honak dütüala herri auzoekin, eüskaldün ala biarnesekin. Eta sekulan eüskal departamentü bat sor baledi, haütü neke bati бүрүз lizateke, alde batetik belüke arrazua (bizipidez Oloruerat dü ixurgia), bestetik bihotza (eüskaldün izan eta egoiteko xede zina...).

1.2.4. Hizkuntza

Hizkuntzari dagokionez, lehen bederen biarnesa eta euskararen arteko muga garbi zen. Alde batetik euskaldunak, eta bestaldetik biarnesak. Euskaldunen artean ohikoa zen biarnesaren jakitea (ene familiar, zaharrenak hirueledunak dira: euskara, frantsesa eta biarnesa), baina biarnesek ez zekiten biarnesez eta frantsesez “baizik”. Olorueko merkatuan, biarnesez edo frantsesez egin behar zen...

Euskara gaitasunaren aldetik, ez ditut datu orokorrak baizik atzeman, Eskiulako herriko etxean bildurik:

ulertzeko gaitasuna:	eskiularren %70
mintzatzeko gaitasuna:	eskiularren %50
erdaldun hutsak:	eskiularren %30

Hiztunen adinak eta jatorriak badute gaitasunarekilako zerikus nabarmena, Zuberoa osoan bezala. Eskiulan sortu berrogei urtez goitiko helduek orok dakite euskara ematen. Gero, gaitasuna adinarekin batera jaiten da. Oraingo berrogei eskiulatar haurretarik hamarrek omen dakite euskaraz.

1.2.5. Euskal nortasuna

Zenbakiak zenbaki, Eskiula betidanik biziki *üskaldüna* izan da. Bere bazterreko egoerak euskal nortasuna zaintzen lagundu du, alboko zuberotar herrietan baino gehiago.

Horren froga bi milagarren urteko pastorala izan da. Eskiulako bostehun eta hamazazpi bizizaleetarik ehun eta hogeita sei partehartzaile izan dira, eta beste lautan hogeia laguntzaile. Gero, bi mila eta bigarren urteko maskaradak ukan ditugu.

Eskerrik hanitx Marcel Lerdou errejentari, Jean Berdot errejenta eta alkate ohiari eta Marie Reine Hurzurigarai herriko etxeko idazkariari beren laguntza eta azalpenengatik.

2. ALDAKETA FONETIKOAK


Jeruntzeko zuberera ongi ulertu ahal izateko, euskara batuarekilako aldaketa fonetikoen jakitea ezinbestekoa da. Gehienak Zuberoa osokoak dira, beste batzuk Zuberoako ipar-ekialdekoak eta bakan batzuk Barkoxe, Eskiula eta Jeruntzeko auzo euskaldunekoak. Adibide guztiak Jeruntzeko euskararenak dira.

2.1. Bokalen jokia


Jeruntzeko euskarak zubereraren 6 bokalak ditu: a, e, i, o, u, ü.

2.1.1. Aldaketarik obikoenak

Batua	Jeruntzen	Adibideak
a	a	<i>aita, ama, osaba ...</i>
e	e, i, ü	<i>ixker</i> (ezker), <i>i'o'i</i> (erori), <i>i'aman</i> (eraman), <i>üntzü</i> (entzun), <i>ükhü'atü</i> (eküratü)
i	i, e, ü	<i>ebili</i> (ibili), <i>ülhün</i> (ilun), <i>lübü'</i> (liburu), <i>dürü</i> (ditu), <i>hügüingarri</i> (higuingarri)
o	o, u	<i>hun</i> (on), <i>gizun</i> (gizon), <i>Baiuna</i> (Baiona), <i>uhuñ</i> (ohoin), <i>muztü</i> (moztu)
u	u, ü	<i>egün</i> (egun), <i>dügü</i> (dugu), <i>muztü</i> (moztu)
au	au, ai	<i>lau, haur, gaiza</i> (gauza), <i>aizo</i> (auzo), <i>haitatü</i> (hautatu), <i>belbaña</i> (belauna)



- NAFARRERA**
- ZUBERERAREN AZPI-EUSKALKIAK**
- BIARNESA**
- Zuberotar herria**
- Biarnoko herria**
- Mendial/bortüa**
- Erreka**



- | | |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <ul style="list-style-type: none"> ● herria Hegilla auzoa - - - udal muga | <ul style="list-style-type: none"> ■ Sallet de Haut (etxaldea) ~ erreka ▲ mendia |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|

2.1.2. Diftongoak

Batua	Jeruntzen	Adibideak
-ea, -ia, -üa	-ia	<i>emaztia</i> (emaztea), <i>bü'ia</i> (bürüa, burua)
-oa, -ua	-ua	<i>arthua</i> (artoa), <i>ahua</i> (ahoa)
-ea-, -ia-, -üa-	-i-	<i>emaztik</i> (emazteak), <i>berrik</i> (berriak), <i>famatik</i> (“famatüak”, famatuak)
-oa-, -ua-	-u-	<i>arthuk</i> (artoak), <i>i'un</i> (eroan), <i>jun</i> (joan), <i>baduk</i> (badoak)

SALBUESPENAK:

süia, süia'entako: sua ez baita “sia” erraten.

iseatü (saiatu, entseatu), *paseatü* (paseatu): -ea- ez da -ia- edo -i- bilakatzten.

erdal jatorrizko hitzak: *kunsellea* (zinegotzia, “le conseiller”), *Lazea* (“le Lacet”), *otoak* (“les autos”)

-ea / -oa ez dira -ia / -ua ahoskatzen.

deiturak: *Mañhagüak*, *Mañhagüek*; -üak eta -üek ez dira -ik eta -iek bilakatzten.

NOREKIN kasua, NOREN kasuaren eratorriak (baina ez NOREN kasua bera) eta NORI kasua:

Batua	Jeruntzen	Adibideak
-ea-, -ia-, -üa-	-ia-	<i>emaztia'iki</i> (emaztearekin), <i>emaztia'entako</i> (emaztearentzat)
		<i>emaztia'i</i> (emazteari)
-oa-, -ua-	-ua-	<i>ardua'iki</i> (ardoarekin), <i>ardua'entako hun</i> (artoarentzat ona)
		<i>ardua'i</i> (ardoari)

Ikus deklinabideak (3. puntua).

2.2. “R” kontsonantea

Eskiulan, “rr” dardaraduna erabiltzen dela uste dut, gaztelaniaz bezala. Eskiulatarrek frantsesez ere “rr” dardaradunaren ahoskatzeko joera dute. Bar-koxen, aldiz, gaztelaniaren “r” leuna erabiltzen dute, bai zubereraz, bai frantsesez.

Ene familian beti “R”a gogor ahoskaturik (frantsesarenaren antzekoa) entzun dut, Zuberoako beste toki anitzetako antzera. Ez dakit zergatik.

Beraz, hiru herri, hiru molde! Hurrengo lerroetan, ene familiaren euskararen joera emanen dut.

2.2.1. Bi bokalen arteko “R” leunaren desagertzea

Bi bokalen artean “R” bakar bat baldin bada, desagertzen da. Kasu honetan, apostrofe batez ordezkatuko dut.

Jéuntze (Jeruntze), *i'o'i* (erori), *i'akurri* (irakurri), *axe'i* (azeri), *be'antü* (berandu), *ho'i* (hori), *zu'e* (zure)

“R” leun hori bi bokal berdinaren artean bada, bokalak fusionatzen dira bat egiteko:

üska' (“üs kara”, euskara), *be'hala* (berehala), *biha'men* (biharamun), *arras-ti'* (arrastiri)

Amitze (Aramitze), *e'* (ere), *bü'* (“bürü”, buru), *ikha'* (ikara)

Oso noiz behinka, “R” leuna (gogor ahoskatu-rik, ikus 2.2.2. puntua) entzun daiteke, baina ez da eredurik.

Salbuespen gutxitan, “R” leuna ez da desagertu eta biziraun du “R” gogor bat bezala ahoskatu-rik:

zeRi (zeri/nori kasua), *oRo*, *huRa* (ura), *beRa*, *XibeRua* (Zuberoa), *beiRez* (beiraz), *zuRa*, *zeRo* (huts)

Eta alderantziz, “R” gogorraren desagertpena (bakanka): *eza'i* (ezarri), baina *ezarten* (ezartzen)

ho'ialde (orrialde), *urtha'ila* (urtarrila)

2.2.2. “R” gogorra

Kontsonante baten ondoan, edo “R” bikoitza baldin bada bi bokalen artean, doinu gogor batez (Frantsesez baino gogorrago) ahoskatzen da.

hauR, *uRthuki* (jaurtiki), *üRhentü* (urrendu, bukatu), *tRistezia*, *i'akuRRi* (irakurri)

“R” bat izan (gogorra) ala ez izateak zenbait hitz bereizten du:

huRa (ura) eta *hu'a* (hura), *be'a* (bera, =bakarrik) eta *beR(R)a* (bera, =hura eta berdin), *e'* (ere) eta *eRRe* (erre)

2.2.3. “RH” multzoa

Anitzetan “H” bilakatzen da: soro → “sorho” → *soho*
erri → “erhi” → *ehi* (atzamar)
berezi → “berhexi” → *behexi*

2.3. “J” hotsa

Frantsesez edo bizkaieraz bezala ahoskatzen da: [ʒ].

Badira hiru “J” ezberdin:

2.3.1. Batuaz bezala idatzia

jaun, *jarri*, *jun* (joan), *jin* (etorri), *jo*,...

2.3.2. Frantsesetik datozen hitzetan

bulanjera (boulanger, okin), *büjeta* (budget, aurrekontua), *alojamentü* (logement, bizileku)

2.3.3. Batuaz “S” idatzi baina “J” bat bezala ahoskatua

Ś batez idatziko dut.

aiše, *i'usa* (airosa, pozik), *frantsesez*, *deüse'* (deus ere), *gisa*, *erredüsitü* (réussir, lortu), *kašik*

soša (diru), *maléuš* (malerus, dohakabe), *Pa'ise* (Parise), *koši lehena* (“cousin”, lehengusu)

Tulušan (Tolosan), *üsatü* (“usar”, erabili), *biarñesak*, *angeleša* (ingelesa), *frantseša*

ba's-batxa (“barax-baratxa”, nekez, kasik ez), *fúsila* (“le fusil”, eskopeta), *Landesak* (“les Landes”)

2.4. “H” hotsa

Erran behar da Zuberoa osoan biziki doinu garrantzitsua dela. Gehiengan ahoskatzen da, sarri kontsonante baten ondotik entzuten da, baita euskara batuak onartzen ez duen hitz anitzetan ere.

Ingelesez edo alemanieraz bezala ahoskatzen da, baina ez gaztelaniaren “J” bezala.

Eskiulako inguruetan, jendeak “H” zenbait hitz fransesetan ere ahoskatzen du, euskararen eraginez.

2.4.1. Bokalen artean: beti

naHi, *aHate*, *aHal*, *beHar*, *leHertü* (lehertu), *eHün* (ehun)

2.4.2. Hitzzen hastapenean: gehiengan

Hitz, *Hartü* (hartu), *Hi'u* (hiru), *Hamar*, *Hogei*, *Handi*, *Hi Hiz* (hi haiz) Salbuespenak urri dira: *a'gi* (haragi), *odeizü* (hodeitsu), *aurhide* (haurride)

2.4.3. Batuak onartzen ez duen hitz baten aitzinean: zenbaitetan

Hürrün (urrun), *Hur* (ur), *hun* (on), *haidü'* (aiduru, beha egon), *ho'ialde* (orrialde), *hanitx* (anitz), *huñ* (oin)

2.4.4. Kontsonante baten ondotik: anitzetan

kh: *ekHia* (eguzkia), *merkHatü* (merkatu), *kHarrika* (kale), *ekHartü* (ekarri)

th: *begitHarte*, *betHi*, *sortHü*, *deitHü*, *sartHü*, *galtHatü* (galdetu), *Nathibitate*

lh: *elHe* (ele, hitz), *elHestatü* (mintzatu), *lHoba* (loba), *ülHün* (ilun)

ph: *aipHatü*, *apHeza* (apaiza)

nh: *senHar*, *eñHe'ik* (unaturik, akiturik, nekaturik), *mañHatü* (bainatu)

rh: *ürHentü* (urrendu, bukatu), *aurHide* (haurride)

Zenbait hitzetan, “rh” multzoak bere “r” galdu du: *ehi* (erhi), *behezi* (berhezi). Ikus 2.2.3.

2.5. “S”, “X” eta “Z” doinuak

Zuberoa osoan bezala “S” eta “X” berdin ahoskatzen dira: [ʃ], eta “Z” doinutik argi bereizten dira.

Oso hitz gutxitan, “Z” frantses edo ingelesaren doinu dardaraduna [z] entzun daiteke. *Ž* idatziko dut:

arražu (arrazoi), *ežne* (esne), *gažna* (gasna, gazta), *bedeži* (sendagile), *žero* (huts)

2.6. Erdi-palatizazioa

“in” silaba zenbait hitzetan “iñ” edo “ñ” ahoska daiteke (palatizazioa), ontsalaz diftongo baten ondotik:

eskiñ (eskuin), *mahañ* (mahaina, mahaia), *mañhatü* (mainatu), *haiñbeste*, *kheñü* (keinu), *huñ* (oin)

hañ (hain), *arraña* (arraina), *gañen* (gainean), *uhuñ* (ohoin), *zań* (zain), *bürdüñ* (“bürdüin”, burdin)

“i-n” ahoskatuak: *adina*, *zinegotzi*, *herrizaina* (ertzaina), *eginen dü* (eginen du), *mina*, *artino* (arte)

“il” eta “it” silabak ez dira kasik sekula entzuten (“ül” eta “üü” bilakatuak), eta ez dute palatizaziorik.

mila, *neskatila* (neska): “mi-la” eta “neskati-la” ahoskaturik dira.

2.7. kontsonante oklusibak

“L” edo “N” baten gibelean, euskara batuaren “D” eta “G” kontsonanteak “T” eta “K” ahoskatzen dira:

helTü (heldu), *jelKhi* (jalgi), *nunTik* (nondik), *hanKo* (hango), *zanKo* (zango, hanka)

2.8. Azentua

Jeruntzeko euskaraz, ontsalaz azentua azkenurren silabaren gainean ezartzen da.

Hala ere, elkartzen diren bokalek azentua har dezakete bukaeran badira: *üská*’ (euskara), *emaztík* (emazteak), *arthúik* (artoak), *oihanín* (oihanean) Halaber, azentuak singularra eta plurala bereiz ditzake (ikus 3.2.).

2.9. Hots multzo ez egonkorak

Zenbait kasutan, hots multzo batek aldaerak ukan ditzake hitz berberan. Adibide nabarmenenak emanen ditut:

2.9.1. -MB- / -NB- multzoa: aldaerarik euskaldunena -NB- da, baina biak entzun daitezke.

zumbait / *zunbait* (zenbait; Zuberoako hainbat tokitan “zumait” ahoskaturik), *khampo* / *khanpo* (kanpo)

2.9.2. -TZ- / -Z- hotsa:

Jéuntze / *Jéunze* (Jeruntze/Jerunze), *Frantzia* / *Franzia*

2.9.3. -TS- / -S- hotsa:

frantsesa / *fransesa*

2.9.4. Bokalen arteko R bakuna: -R- / -Ø- / -y-

zeRi / *zèi* / *zeyi* (zeri), *e’akutsi* / *eyakhustü* (erakutsi, “eraskustü”), *nu’eki* / *nuReki* (norekin)

2.9.5. -IN- multzoa: -IÑ- / -Ñ-

eñhè’ik / *eñhè’ik* (einerik = unaturik, nekaturik), *haiñbeste* / *hañbeste* (hainbeste)

Oharra: hainbat hitzetan, -IN- ez da -(I)Ñ- bilakatzen. Ikus 2.6.

3. DEKLINABIDEA

Deklinabidea gehienbat batuarena da. Aldaketarik nabarmenenak fonetikoak dira.

3.1. Nor, nori, nork

NOR / NUR		NORK / NURK		NORI / NURI	
batuaz	<i>Jeruntzen</i>	batuaz	<i>Jeruntzen</i>	batuaz	<i>Jeruntzen</i>
<i>a / ak</i>	<i>a / ak</i>	<i>ak / ek</i>	<i>ak / ek</i>	<i>ari / ei</i>	<i>a'i / er</i>
<i>ea / eak</i>	<i>ia / ik</i>	<i>eak / eek</i>	<i>ik / ek</i>	<i>eari / eei</i>	<i>ia'i / er</i>
<i>ia / iak</i>	<i>ia / ik</i>	<i>iak / iek</i>	<i>ik / iek</i>	<i>iari / iei</i>	<i>ia'i / ier</i>
<i>oa / oak</i>	<i>ua / uk</i>	<i>oak / oek</i>	<i>uk / uek</i>	<i>oari / oei</i>	<i>ua'i / uer</i>
<i>ua / uak</i>	<i>ua / uk</i>	<i>uak / uek</i>	<i>uk / uek</i>	<i>uari / uei</i>	<i>ua'i / uer</i>
<i>üa / üak</i>	<i>ia / ik</i>	<i>üak / üek</i>	<i>ik / (ü)iek</i>	<i>üari / üei</i>	<i>ia'i / ier</i>

NORK kasuaren singularrean, ez dakit bokalak beti batzen direnez. Irakurri dut ez zirela elkartzen NOR pluralaren bereizteko, baina ez dut horrelakorik bizpahiru aldiz baizik entzun. Beraz, *Jeruntzen* ez da arau bat.

Hala ere, behin baino gehiagotan entzun dudana adibide bat emanen dut: *gi'uak erranen!* (geroak erranen!), “gi'uk” ez baita erraten.

NON / NUN		NOREN / NUREN	
batuaz	<i>Jeruntzen</i>	batuaz	<i>Jeruntzen</i>
<i>an / etan</i>	<i>an / etan</i>	<i>aren / en</i>	<i>a'en / en</i>
<i>ean / etan</i>	<i>in / etan</i>	<i>earen / een</i>	<i>i'en / en</i>
<i>ian / ietan</i>	<i>in / itan</i>	<i>iaren / ien</i>	<i>i'en / ien</i>
<i>oan / oetan</i>	<i>un / utan</i>	<i>oaren / oen</i>	<i>u'en / uen</i>
<i>uan / uetan</i>	<i>un / utan</i>	<i>uaren / uen</i>	<i>u'en / uen</i>
<i>üan / üetan</i>	<i>in / (ü)itan</i>	<i>üaren / üen</i>	<i>i'en / ien</i>

3.2. Non, noren, norekin, norentzat

NON kasua (*nun*): hirien eta herrien kasuan, “-en” atzizkia ere ezar daiteke.

Olu'n (Oloruen), *Baiunan* (Baionan), *Paiuen* (Pauen)

Kongoen (Kongon), *Gernikaen* (Gernikan), *Annecyen* (Annecyn)

NOREN kasuan, kontrakzioek eta “r” leunaren galtzeak hitzaren itxura anitz alda dezakete:

bata besti'en khantin (bata bestearen kantüan/ondoan), *ahu'en barne* (ahorearen barne)

Azentuak singularra eta plurala bereizten ditu: *arthüen* (artoaren) / *art-huén* (artoen)

NOREKIN / NUREKI		NORENTZAT / NURENTAKO	
batuaz	<i>Jeruntzen</i>	batuaz	<i>Jeruntzen</i>
<i>arekin / ekin</i>	<i>a'iki / eki</i>	<i>arentzat/entzat</i>	<i>a'entako / entako</i>
<i>earekin / eekin</i>	<i>ia'iki / eki</i>	<i>earentzat/eentzat</i>	<i>ia'entako / entako</i>
<i>iarekin / iekin</i>	<i>ia'iki / ieki</i>	<i>iarentzat/ientzat</i>	<i>ia'entako / ientako</i>
<i>oarekin / oekin</i>	<i>ua'iki / ueki</i>	<i>oarentzat/oentzat</i>	<i>ua'entako / uentako</i>
<i>uarekin / uekin</i>	<i>ua'iki / ueki</i>	<i>uarentzat/uentzat</i>	<i>ua'entako / uentako</i>
<i>üarekin / üekin</i>	<i>ia'iki / üiki?</i>	<i>üarentzat/üentzat</i>	<i>ia'entako / ientako?</i>

NOREKIN kasua (*nu'eki/nureki*): Jeruntzen, bukaeraren “N” ez da ahoskatzen. Gainera, ez dut sekula “arekilan” bezalako formarik entzun (Euskal Herriko ekialdeko beste zenbait tokitan, aldiz, bai).

Kontrakzioek hitzaren ahoskera guztiz alda dezakete: *bü'iaiki* (buruarekin)

Kasu batzuetan, ZERTAZ ordezkutzen du:

gogua'iki eginik (gogoarekin, gogoaz), *X bateki ezki'batzen dük* (X batez idazten duk)

NORENTAKO (*nu'entako*): “norentzat” eta “norentzako” kasuen balio-kidea da.

hi'etako (hiretzat), *zu'etako* (zuretzat), *aita'entako* (aitarentzat), *haurrentako* (haurrentzat)

deüseta'ko (deusetarako, inola ere ez, sekula)

Batuaren ZERTARAKO eta ZERGATIK kasuak ere ordezkutzen ditu:

lana'entako (lanerako), *ho'ientako* (horiengatik), *bestalde'ntako* (pour le reste)

ezkütiük arrenkü'a hartako (ez gaituk arrengura[tzen] harengatik)

NORTAKO: batuaren NORTZAT kasua ordezkutzen du.

üskaldünak gaiza txipientako etxekitzen zitiea (euskaldunak gauza txiki-tzatzat hartzen zitiztean)

3.3. Nora, noraino, zeri buruz

NORA: *no'at / nu'at* (-RA, -RAT, -ALA, -ALAT)

Zubereraz, “-‘ALA” atzizkiak batuaren “-‘RA” (“-RAT” Lapurdin eta Baxe Nafarroan) atzizkiaren balioa omen du, eta “-ALAT” atzizkiak NORAINO kasua ordezkutzen du.

Jeruntzen, ez dut honelako bereizketarik atzeman. Denetarik entzun daiteke, baina ematen du badirela lau arau orokor

	Bukarea	Zer kasutan	Zenbat	Adibideak
1	-(E)RA	aditzak + GORA + BEHERA	-	<i>ikhuste'a</i> (ikustera), <i>txerkatze'a</i> (txerkatzera, bilatzera) <i>go'a</i> (gora), <i>behe'a</i> (behera)
2	-(E)RAT	herriak + NORAT + ETXEALAT	-	<i>no'at / nu'at</i> (nora), <i>etxe'at</i> (bere etxera) <i>Afrikat</i> (Afrikara), <i>Espanat</i> (Espainara) <i>Lyon-e'at</i> (Lyon-era), <i>Baiumat</i> (Baionara) <i>Olu'at</i> (Oloruera), <i>Eskiulat</i> (Eskiulara) <i>Bordel'e'at</i> (Bordelera) BAINA : <i>Espanalat</i> (Espainara), <i>Holandilat</i> (Holandara)
3	-(A)LA(T)	izen arruntak + ETXEALAT	singularra	<i>gogula</i> (gogora), <i>me'iala</i> (“meriala”, herriko etxera) <i>lekhila</i> (lekura), <i>batetik bestila</i> (batetik bestera) <i>Barkoxe khantila</i> (Barkoxe “kantüala” / bazterrera) <i>Je'untzeko mudala</i> (Jeruntzeko modura) <i>ohilat</i> (ohera), <i>lüririlat</i> (lurrera), <i>kampulat</i> (kanpora) <i>frantsesilat</i> (frantsesera), <i>etsilat</i> (haren etxera) <i>üdü'ila</i> (“üdüriala”, dirudienez)
4	-(E)TARA(T)	izen arruntak	mugagabea + plurala	<i>zerbaiteta'</i> (“zerbaitetara”, zerbaitera), <i>bateta'</i> (“batetara”, batera) <i>etxeta't</i> (etxetara)

Herrien kasuan, kontrakzioen jokoak deklinabidea “-’t” bakar bat bilaka dezake.

NORAINOren erabilpena: NORA + ARTINO

*nui*z artino? = *nui*z arte? (biak erabiliak), *da*gün artio! (daigun/datorrena arte!), *u*'ai artino (orain arte)

banuk Española*t* artino (banoak Espainara artino/banoak Espainaraino)

*arra*maiatza'en ürhentzila artino (ekainaren "ürrentzeala artino" / bukaerara arte)

ZERI BÜRÜZ (*ze(r)i bü'z*) NORANTZ kasuaren ordezkatzeko erabiltzen da:

*e*ztakiat zeri bü'z gi'en (ez zakiat zeri buruz [ari] garen, ez dakit norantz goazen)

*lau*tan hogei bede'atzü'e'i bü'z gütüük (laurogeita bederatzieri buruz [ari] gaituk)

3.4. Nondik, norengandik

NONDIK kasuarekin ere, ugari dira erak. Nire ustez, lau taldetan sailka daitezke:

	Bukarea	Zer kasutan	Zenbat	Adibideak
1	-(E)RIK	herriak + ETXERIK	-	<i>Barkoxe'ik Je'untze'at, Mumurre'ik igáitez</i> (Barkoxetik Jeruntzera, Moumour-etik igaratez/iragatez). <i>Baiuna'ik</i> (Baionatik), <i>Manchesterre'ik</i> (Manchesterretik) <i>Angleterra'ik jinik dük</i> (Ingalaterratik etorri duk) BAINA: <i>Donama'itik</i> (Donamaritik) <i>etxe'ik jinik dük</i> (bere etxetik etorri duk) <i>ni enük hola, büllanik e'!</i> (ni ez nauk horrela, hurbiletik ere!), <i>gazte'ik</i> (gaztetik)
2	-(E)TIK	izen arruntak + NONTIK + ETXETIK		singularra <i>e</i> ztakiat <i>nuntik horra den</i> (ez zakiat nondik datorren) <i>Geneve khantütik</i> (Geneve-en albotik) <i>etxetik jinik dük</i> (haren etxetik etorri duk)
3	-(E)TARIK	izen arruntak	mugagabea + plurala	<i>arteta'ik</i> (artetarik, noizean behin) <i>bakantzeta'ik landa</i> (bakantzetatik landa, oporren ondoren)
4	-TI	GAINTI GOITI BEHEITI	-	<i>oro</i> z gainti (oroz gaindi, oroz gaintetik) <i>he</i> ben gainti (hemen gaindi) <i>bü'ti goiti behe'a</i> (bürütik goitik behera)

NORENGANDIK kasua NONDIK kasuarekin ere gauzatzen ahal da:

hi'etik (hiretik, =hiregandik), *hi'eganik* (hireganik, =hire partez), *bestene-tik* (besteenetik, =besteengandik)

3.5. Khantü

Erran-nahia: ALBO, ONDO.

Hona hemen zenbait adibide, deklinabideen aldaketa fonetikoak direla-eta:

badakikek Je'untze heltzen dela Barkoxe khantila (jakinen duk Jeruntze Barkoxe albora heltzen dela)

baganakia bi je'unzta egoiten zi'ela Barkoxe khantin (Bagenekian bi je-unzta bizi zirela Barkoxe ondoan)

Salet khantütik otoak igaiten tük (Sallet ondotik autoak igaraten/iragaten dituk)

bürdüñ bidia hen etxe khantin igaiten dük (burdin bidea/trena haien etxearen ondotik iragaten duk)

bata besti'en khantin tük (bata bestearen ondoan dituk)

Zubereraz, honela idatzi behar litzateke: kantüala, kantüan, kantütik.

ondo ere erabil daiteke, baina gutxiagotan: *etxe ondun* (etxe ondoan), *ondoko astin* (ondoko astean)

3.6. Partitiboa

PARTITIBOA (-ik, -rik): “R” leuna ahoskatzen ez denez, beti “-IK”

lotsa'ik gabe (lotsarik gabe, *lotsa* = beldur), *deü'se' beste'ik* (deus ere besterik)

badük beharre' beste ofizio'ik (baduk behar ere beste ofiziorik), *deü'se hunik* (deus ere onik)

eztük beta'ik bakhotzik e' jin (ez duk haietarik bakoitzik/bat ere jin/etorri)

etzia lo'ik egiten ahal hainbeste be'o zen (ez zian lorik egiten ahal hainbeste bero zen)

eztük egun o'z jin beharrik (ez duk egun oroz/egunero jin/etorri beharrik)

zunbat beste'ik (beste zonbat/zenbait)

Hitza “I” batez bukatzen bada, ez da “-K” bat baizik entzuten:

ez berri handi'k (ez berri handirik), *deü'se' berri'k* (deus ere berririk)

3.7. Zertaz

Erabilpen zabalekoa da. Adibideak:

artez artez (noizean behin), *egün o'z* (egun oroz, egunero), *hitzez hitz*, *erriz* (irri eginez)

hi'e medioz (hire bidez, hiri esker), *arkatz khaldüz* (arkatz kolpez), *kheñüz* (keinuz)

eman ezak hi'e berriz (eman ezak hire berri), *muthiko horri soz* (mutiko horri begira)

ebia turrustaz a'i dük (euria zurrusta ari duk), *beste gisaz batez* (beste era batera)

huñez (oinez), *beste phartez* (bestalde, bestela), *lehen aldikoz*

3.8. Erakusleak

Batuaren hurbiltasuneko hiru mailak erabiltzen dira: *hau*, *ho'i* eta *hu'a* (hau, hori, hura). Hala ere, ohikoena bigarrena da.

Aldaketak kontrakzioengatik agertzen dira:

ha'ik (“harek”, hark), *hek* (haiek NORK), *ho'ik* (“horik”, hauek), *ho'iek* (horiek), *hu'ak* (“hurak”, haiek NOR)

ha'en (haren), *ho'ien* (horien), *haien/hen* (haien), *hunek* (honek), *hu'ei* (horiei), *her* (haiei)

huntan (honetan), *hortan* (horretan), *ho'itan* (“horitan”, hauetan), *hetan* (haietan)

ho'ietai'ik (horietarik), *hetai'ik* (haietarik), *horrentako* (horrentzat), *ho'ientako* (horientzat)

ha'entako (harentako), *horrez* (horretaz), *ho'i gatik* (horrengatik)

ha'iki (harekin), *ho'ieki* (horiekin)

BERA: *be'ak* (berak), *be'ieki* (beraiekin), *be'ien* (beraien)

3.9. ORO, nola ahoskatu eta noiz erabili

ORO hitza garrantzi handikoa da. Izan ere, kasurik gehienetan DENA, GUZTI eta OSO hitzak ordezkatzeko ditu.

Bere bi bokalen arteko “R” leunak aldaketa fonetiko handiak eragin ditzake. Ez da eredu zehatzik, baina bi joera bereiz daitezke:

1. ORO bakarrik denean, osoa ahoskatzen da “R” gogor batez.
2. Deklinabide bat baldin badarama, “R” leun hori desagertzen da eta bi “O”-ek bat egiten dute.

Hurrengo adibideak joera hauek erakutsiko dituzte, baita salbuespen anitz dela ere:

oro ikhusi diat (dena ikusi dut), *orok diagü* (guztiek dugu), *oroz gainti* (oroz gainetik)

oro'en huna (guztien ona), *ho'i oro* (hori guztia), *esküña oro* (esku osoa), *oro'i* (orori)

oroentako (guztientzat), *ko'aje hun oro'i!* (kuraia on guztiei!)

o'er (guztiei), *o'entako* (guztientzat), *o'ta'ik* (denetarik)

Franzian/Xiberun o'tan (Frantzia/Zuberoa osoan), *o'tan* (denetan), *alde o'tan/ald'o'tan* (leku guztietan)

kampun di'enak o' (kanpoan direnak oro), *egün o'zko ho'ialdetan* (egun orozko orrialdeetan)

egün o'z (egun oroz, egunero), *igant' o'z* (igande oroz, igandero), *hilabet'o'z* (hilabete oroz)

nahi diener o'er (nahi duten guztiei), *lürreko di'enak o' i'amaiten dik* (ongarri direnak oro eramaten dik)

3.10. NOREN kasua eta ahaideen tratamendua

Erakusle pertsonalak ahaide baten izenaren aitzin (singularra?) zein gibe-lean (plurala?) ezar daitezke:

behar düta hi'e ama'i igorri? (hire amari igorri behar al dut?)

hi'e amañi'en kosi lehena (hire amañiren lehengusua), *ene arreba* (nire arreba)

hi'e aitak bezala (hire aitak bezala)

ama ziena'i nahi düka igor dizodan nik? (nahi al duk ama zuenari igor/bidal diezaiodan?)

ama gü'ia eta be'a aurbide zütia (ama gurea eta bera haurride zituan/ziren)

Maurice gü'ik badik adiskide hunak (Maurice gureak baditik adiskide onak)

jun gü'tük Jean Marc gü'ia'en ikhuste'a (joan gaituk/gara J.M. gurearen ikustera)

aita ziena zia (aita zuena zian/zen)

4. ADITZA

4.1. Aditz laguntzaileak:

4.1.1. Lau aditz laguntzaile

- *IZAN* : nor eta nor nori
- *ÜKHEN* : nor nork eta nor nori nork
- *“EDIN”* : *jin dadin*, nor eta nor nori
- *“EZAN”* : *egin dezan*, nor nork eta nor nori nork

Ez dut IRON aditz laguntzailearen aztarnarik atzeman (Zuberoan eta Baxe Nafarroan erabilia omen da). Dirudienez, Jeruntzen potentziala beti AHAL erabiliz egiten da.

Hala ere, ondoko erranaldiarekin zalantza bat badut: *eloie seküla erran agorrilan gi'ela*. Itzulpena baldin bada “ez liroe sekula erran agorrilean garelá”, orduan IRON ager daiteke zenbait kasu bakanetan.

4.1.2. Aditz laguntzailearen osaera

Ez dut zubereraren oinarrizko aldaketa zenbait baizik emanen, Jeruntzen ez baita berezitasunik:

“TE” pluralgilea: hirugarren pertsonaren “te” hori beti “e” da.

zaie, die (“düe”, dute), *dezen* (dezaten), *deioe* (diote)

“ZKI” pluralgilea: bere ordezt, “z” eta “tz” erabiltzen dira.

zait, zaizt (zaizkit), *zaio, zaitzo* (zaizkio)

deit (dit), *deizt* (dizkit), *deio* (dio), *deitzo* (dizkio)

NOR NORI NORK: erroa “-ei-” da, batuaren “-i-” ordezt.

eman deio (dio), *ekharri zeion* (zion), *erran baleio* (balio)

eman deiko (dioke), *ekharri zeikon* (ziokeen), *erran nahi leiko* (lioke)

SUBJUNTIBOA NOR NORI NORK: aditz laguntzailearen erroa trin-koagoa da.

nahi düka eman dizodan? (nahi al duk eman diezaiodan?)

ALOKUTIBOAREN ALDAKETAK ETA KONTRAKZIOAK:

ZUBEROAN				BATUAZ				
arrunta	toka	noka	züka	arrunta	toka	noka		
<i>da</i>	→	<i>dük</i>	<i>dün</i>	<i>dütüzü</i>	da	→	duk	dun
<i>gütü</i>	→	<i>gitik</i>	<i>gitin</i>	<i>gitizü</i>	gaitu	→	gaitik	gaitin
<i>nai</i>	→	<i>nik</i>	<i>nin</i>	<i>nizü</i>	nau	→	naik	nain
<i>naie</i>	→	<i>nie</i>	<i>niñe</i>	<i>nizie</i>	naute	→	naitek	naiten
<i>zait</i>	→	<i>zitak</i>	<i>zitan</i>	<i>zitazü</i>	zait	→	zaidak	zaidan
<i>zaio</i>	→	<i>ziok</i>	<i>zion</i>	<i>ziozü</i>	zaio	→	zaiok	zaion
<i>deit</i>	→	<i>ditak</i>	<i>ditan</i>	<i>ditazü</i>	dit	→	zidak	zidan
<i>deio</i>	→	<i>diok</i>	<i>dion</i>	<i>diozü</i>	dio	→	ziok	zion

Zubereraz, baita ekialdeko baxenafarreraz ere, hirugarren pertsonak ez du “d-” aurrezkia “z-” bilakatzen alokutiboan.

4.1.3. Menpeko perpausen aditz laguntzaileen kontrakzioak edo aldaketak

Kontrakzioak bukaeraren bokalaren araberakoak dira, tokako “-k” atzizkia zerrendari gehituz.

Hurrengo adibideak eredutzat har daitezke Jeruntzen:

Jeruntzen		Batuaz
<i>dü</i>	→	<i>dila</i>
<i>da</i>	→	<i>dela</i>
<i>dük</i>	→	<i>diala</i>
<i>di'a</i>	→	<i>di'ela</i>

<i>gi'a</i>	→	<i>gi'ela</i>	gara	→	garela
<i>zi(a)(n)</i>	→	<i>zila</i>	zuen	→	zuela

Lehen zutabearen formak arruntekoak dira (*dü, dikl din/ dizü* orde).
 Jeruntzeko euskararen beste ezaugarri bat: NOR NORK kasuan, arrunta da baiezko perpausen hirugarren pertsonaren pluralaren “d-” aurrezkiaren kentzea:

badük (baduk, bada), *batük* (badituk, badira), *batik biga* (baditik bi), *jentik hala tük* (jendeak hala dituk)

hartü tüt (hartu ditut), *jin tük* (jin dituk, etorri dira), *berrik ükhen tiagü* (berriak ukan ditiagu)

üntzik xahatzen tik (untziak xahutzen ditik), *adiskidik txerkhatzen tie* (adiskideak bilatzen “ditie” / ditiztek)

Baina ezezkoetan: *eztütük behiak be'ak ertzotzen* (ez dituk behiak berak / bakarrik erotzen)

eztitik lübü'iak i'akurri nahi (ez ditik liburuak irakurri nahi)

4.2. Alokutiboa Jeruntzen

Zuberoako edozein tokitan bezala, alokutiboa beharrezkoa da, hau da, toka, noka edo züka egitea.

Ene familian, guztiz arrunta da toka/noka egitea. Niri senideak beti toka egiten zuzendu izan zaizkit. Züka ezezagun batekin edo errespetu handiko batekin egiten da. Joera hori Jeruntzeko alboko herrietan hedatua da: Eskiulan eta Barkoxen. Zuberoako beste herrietan, noka galdutzat ematen da.

Ene senideek erran didate aurreko gizaldiak züka egiteko joera handiagoa zuela. Eskiulatar batek berretsi dit. Inguru honetako hikaren ezaugarri bereizgarri bat iraganaren “-n” atzizkiaren desagerpena da.

ORAINA	JERUNTZEN		BATUAZ	
	toka	menpekoetan	toka	arrunta
IZAN	<i>nük</i>	<i>nizala</i>	nauk	naiz
	<i>hiz</i>	<i>hizala</i>	haiz	haiz
	<i>dük</i>	<i>dela</i>	duk	da
	<i>gütük</i>	<i>gi'ela</i>	gaituk	gara
	<i>zi'a</i>	<i>zi'ela</i>	zara	zara
	<i>zidie</i>	<i>zidiela</i>	zarete	zarete
	<i>tük (= dütük)</i>	<i>di'ela</i>	dituk	dira
ÜKHEN	<i>diat</i>	<i>düdala</i>	diat	dut
	<i>dük</i>	<i>diala</i>	duk	duk
	<i>dik</i>	<i>dila</i>	dik	du
	<i>diagü</i>	<i>dügüla</i>	diagu	dugu
	<i>düzü</i>	<i>düzüla</i>	duzu	duzu
	<i>düzie</i>	<i>düziela</i>	duzue	duzue
	<i>die</i>	<i>diela</i>	ditek	dute

IRAGANA	JERUNTZEN		BATUAZ	
	toka	menpekoetan	toka	arrunta
IZAN	<i>nündia</i>	<i>nintzala</i>	ninduan	nintzen
	<i>hintzan</i>	<i>hintzala</i>	hintzen	hintzen
	<i>zia</i>	<i>zela</i>	zuan	zen
	<i>güntia</i>	<i>ginela</i>	ginduan	ginen
	<i>zinen</i>	<i>zinela</i>	zinen	zinen
	<i>zinien</i>	<i>ziniela</i>	zineten	zineten
	<i>zütia</i>	<i>zi'ela</i>	zituan	ziren
ÜKHEN	<i>nia</i>	<i>nila</i>	nian	nuen
	<i>hin</i>	<i>hila</i>	huen	huen
	<i>zia</i>	<i>zila</i>	zian	zuen
	<i>ginia/gina</i>	<i>günila</i>	ginuan	genuen
	<i>zünin</i>	<i>zünila</i>	zenuen	zenuen
	<i>zünien</i>	<i>zünuela</i>	zenuten	zenuten
	<i>zieia/ziea</i>	<i>ziela</i>	zitean	zuten

ÜKHEN aditz laguntzailearen beste formak:

<i>ditade</i>	→	zidatek (didate + toka)
<i>zitia</i> / <i>zütia</i>	→	zitian / zituela (zituen + toka)
<i>zitie(i)a</i> / <i>zütiela</i>	→	zitiztean / zituztela (zituzten + toka)
<i>zitada</i>	→	zidaan (zidan + toka)
<i>zeitadiela</i>	→	zidatela
<i>nikia</i> / <i>nükila</i>	→	nikean / nukeela (nukeen + toka)

NOR NORI NORK kasuan, gehizko -d- bat sartzen da NORK pluraleko 3. pertsona bada eta NOR singularreko 1. pertsona bada: *ditade* (didate, TOKA), *zitada* (zidan, TOKA).

Taulan ikusten den bezala, iraganean zubereraren diftongoen arteko “-ia-” diftongoak Jeruntzen “-i-” ematen du.

Menpeko perpausak bezalako expresioetan, arruntekoa erabili behar da. Adibidez: *lehen egiten günin bezala* (lehen egiten genuen bezala)

Tokaren beste ezaugarri bat: bigarren pertsona “-k” batez bukatzen denean (duk, badakik, ...), menpeko perpausetan “-ia-” bilakatzen da (*dian, badakian, ...*). Lapurdin eta Baxe Nafarroan, “-ka-” izanen litzateke (dukan, badakikan, ...). Beraz, puntu horretan zubererak batuaren jarrera du.

Adibidez: *nahi dian gisa* (hik nahi “dukan” bezala), *dakian bezala* (hik “dakikan” bezala)
hek emanen deie nahi diana (haiek emanen diate hik nahi “dukana”)

Erran behar da Jeruntzen elaidekoaren erabilpena ona dela eta bere debekuak aintzat hartuak direla, hau da, ez dela erabiltzen ahal:

1. Menpeko perpausetan
2. Galderetan

Zükari dagokionez, zenbaitetan “zü” hori galtzen da:

düt / *diat* / *diñat* / *dizüt* → *düt* / *diat* / *diñat* / *dit*
badakit / *badakiat* / *badakiñat* / *badakizüt* → *badakit* / *badakiat* / *badakiñat* / *badakit*

4.3. Aditz trinkoak

Ez dira batere hedatuak. Batez ere JAKIN eta JOAN aditzak trinko bezala erabiliak entzun ditut, bai eta zenbait aditz berezi ere aginteran:

jakin: *badakiat* (bazakiat), *be'ak dakik* (berak zakik), *badakikek* (jakinen duk), *etzakiea* (ez zekitean)
baganakia (bagenekian), *enakia* (ez nekian), *bazakien* (baze-kiten), *enakiziün* (ez nakien + züka)

jun (joan): *banuk* (banoak, banoa), *baduk hobeki* (badoak hobeki), *bagutza* (bagoaz)

erran: *zer diok?*

JAUGI aditza: ETORRI-ren baliokidea, zenbait kasu urritan.

haigü! (etor hadi; "haugi" baxenafarteraz), *dagün astin* (datorren astean), *ziauzte!* (zatozte!)

bego! (aski!, egon aditzetik), *to!* (har ezak)

4.4. Menpeko perpausak eta galderak

4.4.1. ZERENTAKO: *ze'ntako* ahoskaturik ("R" gabe)

Batuaren ZERGATIK galderaren balioa badu, *BEIT*-aurrizkia edo *-LAKOZ* atzizkia erabiltzen dira, eta gutxiagotan *ZEN*. Batuaren "bait-", "-lako" eta "zeren"-en baliokideak dira. Lehenaren kasuan, kontrakzioek aurrezkia alda dezakete:

jin beniz (etorri bainaiz), *jin behiz* (etorri baihaiz), *jin beita* (etorri baita), *jin beiki'a* (etorri baikara)

üdü'i beilü (iduriko bailu), *jin delakoz* (etorri delako)

ze'n be' aldetik oro hor zütia (zeren bere aldetik oro hor ziren)

Oharra: galdetzeko, *ze'ntako zergatik* baino gehiagotan erabiltzen da.

Batuaren ZERTARAKO galderaren balioa badu, batuaz bezalaxe erabiltzen da, baina gehienetan aditzaren nominalizazioa eginez:

egia'en jakiteko (egia jakiteko), *horren ikhusteko* (hori ikusteko), *bedezi izateko* (sendagile izateko)

4.4.2. ZERTAZ

Kasu honek ere batuaren ZERGATIK ordezka dezake, aditzaren nominalizazioa eginez:

kunten gütüük zien berrien ükheitez (kontent/pozik gaituk zuen berri uka-teagatik, ükhen/ukan aditzetik)

Antzeko egitura: *kunten gütüük go'atzen hizala hi'e ofiziun* (kontent gaituk goratzen haizela hire ofizioan)

NOLA eta NOIZ kasuak ere ordezkatzen ditu:

berrika'i txarra egin nitek, ene gogua jarraikitez (berrikari txarra egin nitek, nire gogoari jarraikiz)

ene ikhustez, ezpeitzakin habo' zer erran, ... (ni ikustean, ez zekienez gehiago zer erran, ...)

hi'e erranetan i'akurtzez (hire erranetan irakurriz)

4.4.3. NOIZ: *nuiz* ahoskatua

Batuaren "-nean" eta "-larik" atzizkiak erabiltzen dira, *-NIN* eta *-LAIK* ahoskaturik.

behar ginikek i'us izan osagarri dügünin (airos/dohatsu izan behar ginikek osasuna dugunean)

nihau nizanin (nihaur/bakarrik naizenean), *ahal düdanin* (ahal dudanean)

hasten hizanin txerkhatzen iga'n dena (hasten haizenean bilatzen iragan dena)

behar zi'ela'ik Je'untzeko me'iala jun (behar zirelarik Jeruntzeko meriara/udaletxera joan)

hor nintzala'ik (hor nintzelarik), *heben zela'ik* (hemen zelarik), *behar dela'ik* (behar delarik)

4.4.4. Zalantzazkoak: (EIA) ... -NEZ

“-ez” gehitu behar zaio “-n” bukaerari. “-n ala ez”-en baliokidea da:

galthatü dioiat hi'etako lekhü bat balizatekenez (galdetu zioat/diot hiretzako leku bat balizatekeen ala ez)

eztakiat jinen gi'enez (ez zakiat etorriko garen ala ez)

gi'oak erranen dikük kuntent di'enez (geroak erranen ziguk/digu kontent diren ala ez)

eia atzamanen dianez... (ea atzemanen/aurkituko dian [hik]...)

eia zer edi'enen dük Bilbon (ea zer edirenen/aurkituko dian Bilbon, “*dük*” “*dian*” ordez, baina ez da zuzen...)

4.4.5. Zati galdera: -A

ZER edo NOR bezalako galderatzailerik gabeko galderetan, aditz laguntzaileak “-a” atzizkia hartzen du. Bokal batez amaitzen bada, bokalarekin bat egiten du “-ia” bilakatuz:

nahi düka igor dezadan? (nahi al duk igor/bidal dezadan?)

egin düzia? (egin al duzu?), *egia deia?* (egia al da?), *egin behar düta?* (egin behar al dut?)

üskaldün astik bazina hi'u egün beno habo? (euskal asteak ba al zuen hiru egun baino haboro/gehiago?)

üdü'i zaika? (irudi zaik?), *Eztea hobe?* (ez al da hobe?)

Oharra: “*dük-a*” ez da “*dia*” bilakatzen, eta “*düt-a*” ez “*düda*”.

4.4.6. Kausalak: BEIT-

4.4.4. puntuan ikusi bezala, “-nez” atzizkia zalantza/baldintzaren adierazteko erabiltzen da. Beraz, hau da “*beit-*” aurrezkiaren bigarren erabilpena:

ezpeitakit nu'at igorri behar den, hi'e aitamen etxilat igorten deiat (ez dakidanez nora bidali behar den, hire aitamen etxera bidaltzen diat).

herri bazterretik jiten beitzen, errejentak erraiten diok: “...” (herri bazterretik jiten/etortzen zenez, irakasleak erraten ziok/dio: “...”)

Aurrizkiaren (*beit-*) aldaketak 4.4.1. puntuan emanak dira.

4.5. Denbora bereziak

4.5.1. Aditz trinkoen orainaldiaren eta iraganaren geroaldia

NOR kasuaren geroaldiaren egiteko, orain/iragan aldiari TEKE / TE gehitzen zaio.

dateke / dükeek = izanen (izango) da
düke / dikeek = ukanen (edukiko) du
zatekin / zükia = izanen zen (zatekeen)
zükin / zikia = ukanen zuen (zukeen)
hor nükeek (hor naukek, hor izanen nauk), *nahi dikeek* (nahiko dik)
enakia, ez bestek e', hor zatekila (ez nekien, ezta besteek ere, hor izanen zela / zatekeela)
erran ditade lüze zatekila sendotzia (erran zidatek luze izanen zela / zatekeela sendotzea)
eztitade erran zuñ egünez han di'atekin (ez zidatek erran zein egunez han diratekeen / izanen diren)
eztakie nuiz gi'atekin hen egongian (ez zakitek noiz giratekeen / izanen garen haien etxean)
 Zenbait gramatikatan irakurri dut zubereraz ez zirela “te-dun” formak baizik entzuten. Barkoxe, Eskiula eta Jeruntzen ez da hala: “-teke” zein “-te” entzuten da.

NOR NORK kasuaren geroaldiaren egiteko, orainaldiari KE gehitzen zaio.

papè'ak españul tükek? (paperak españolak dituzkek / ukanen dituk?)
badükegü aski lekhü? (leku aski izanen / ukanen dugu?)
Amañi nahi dükeek ikhusi (Amañi ikusi nahiko duk, Amona ikusi nahi izango duk)
bihar badakikek (bihar jakinen duk)
 Hala ere, zenbaitetan ere aditz laguntzailea erabiltzen da:
bihar ükhenen diat (bihar ukanen diat) = *bihar badükiat*
 Ikus ere 4.5.3. puntuaren oharra (NOR NORI kasua).

4.5.2. Baldintza

Orainaldian, EDIN eta EZAN aditzlaguntzaileak erabiltzen dira: aditzaren erroa + *baledi / baleza*

jin baledi (etorriko balitz): s'il venait / si viniera.

jin ahal baledi (etortzen ahalko balitz): s'il pouvait venir / si pudiera venir

ikhus baleza (ikusiko balu): s'il le voyait / si lo viera

ikhus baleze (ikus balezate, ikusiko balute): s'ils le voyaient / si lo vieran

Geroaldian, IZAN eta ÜKHEN aditzlaguntzaileak erabiltzen dira: aditza + T(Z)EN + *balitz / balü*

aithortzen balü, pharkatü / pharkatzen ahal nikiok (aitortzen balu, barkatu / barkatzen ahalko niokek / nioke)

Oharra: ez dut uste orainaldiko eta geroaldiko baldintzen artean ezberdintasun handirik denik, nahiz zenbait gramatikatan kontrarioa erraten den.

Iraganean, IZAN eta ÜKHEN aditzlaguntzaileak erabiltzen dira: aditza + *balitz / balü*

jin balitz (etorri balitz): s'il était venu / si hubiera venido

ikhusi balü (ikusi balu): s'il l'avait vu / si lo hubiera visto

Oharra: hiru denbora hauekin, AHALekin partizipioa -KO gabe erabiltzen da.

4.5.3. Ondorioa

Orain/geroaldian, ALEGIAZKOA erabiltzen da (IZAN/ÜKHEN): aditza + T(Z)EN + *lizate(ke) / lüke*

balin baleki, egiten likek (baldin baleki, eginen likek/luke), *ürhentsen likek* (amaituko luke)

IZAN eta ÜKHEN aditzekin, aditza ez da errepikatzen (izanen lizateke → *lizate*):

txarrago lükek ezpaledi ihu' e' jin nahi (txarrago lukek/litzateke ez baledi ihur/inor ere etorri nahi)

AHAL, BEHAR, NAHI eta ÜDÜ'I (üdüri/iduri) aditzekin, -KO atzizkia ez da erabiltzen:

egiten ahal nitek (egiten ahalko nitek)

hori behar ginikek egin (hori egin behar(ko) ginikek/genuke)

zer behar lizateke egin? (zer egin beharko litzateke)

nun behar lizate txerkhatü? (non beharko litzateke bilatu?)

nahi dikek bihar ürhentü (bihar amaitu nahiko dik; dikek = dik + -ke- = geroaldia)

üdü'i likek laket dela (irudi luke laket/pozik dela)

Iraganean, IRAGANAREN GEROALDIA erabiltzen da: aditza + KO / EN + *zen / zin* (zuen)

jakin banü, franseséz mintzatüko güntia (jakin banu, frantsesez mintzatuko gintuan/ginen)

jakin balie, zer erranen zien? (jakin balute, zer erranen zu[ke]ten?)

gogo hunez eginen nia, bena aizuk nahi zia jun nendi (gogo onez eginen nian, baina auzokoak nahi zian joan nendin)

ezpalü erran, alokaidetiarrek phakatü'en zieia (ez balu erran, alokatzaileek pagaturen/ordainduko zitean/zuten)

Hala ere, iraganean AHALekin “zukeen” bezalako formak erabiltzen dira.

lehan erran baleit, zerbait egiten ahal nikia (lehan erran balit, zerbait egiten ahal nikian / egiten ahalko nian)

Oharra: ematen du Jeruntzen NOR NORI kasua geroaldian galdua izan dela, eta ordezkatzeko KODUN formak erabiltzen dira.

bihar beharko zioK ha't jun (bihar hara joan beharko zaiok): *beharko zioK* “behar ziokek” ordeZ.

Bada ongi azaltzen ez dakidan erranaldi bat, bere testuingurutik at hartu baitut: *berrika'i txarra egin nitek*. Itzulpenak izan daitezke: “berrikari txarra egin nukeen” edo “berrikari txarra eginen nuke”. Badirudi lehena ona dela, baina erranaldiaren egitura besteengandik ezberdina da.

4.5.4. Iragana

Batuaren iragana (joan nintzen, egin nuen) ez da iragan urrunaren aipatzeko baizik erabiltzen. Iragan hurbila baldin bada, hurbileko era erabiltzen da (joan naiz, egin dut).

Iragana urruna:

egün hortan, be' biziko üstegabe handiena ükhen zia (egun horretan, bere biziko ustegaberik handiena ukan zian/zuen)

denbo'a hetan, biarnesek gaiza txipientako etxekitzen zitiea üskaldünak (denbora haietan, biarnesek gauza txikitat atxikitzen/hartzen zitiztean/zituzten euskaldunak)

bedeziak erran zeitan iga'n urthin, eta hola egin ginia (sendagileak erran zidan iragan urtean, eta horrela egin ginian/genuen)

Iragana hurbila

atzo, Olu'at jun nük (atzo, Oloruera joan nauk/naiz)

Frantsesaren eragina dateke, baina ohart dezagun frantsesez iragan urruna ez dela liburuetan baizik erabiltzen. Aldiz, zenbait egün iragan bada, Jeruntzen iragan urruna erabiltzen da:

U'ai dila hi'u egün üntzü nia emazte batek erraiten: «... » (orain duela hiru egun entzun nian emazte batek erraiten: «... »)

4.5.5. Subjuntiboa

Jeruntzen, subjuntiboaren erabilpena hedatua da.

nahi diat jin dadin (nahi dut etor dadin)

nahi diat ikhus dezan (nahi dut ikus dezan)

egin diat ikhas dezen (egin dut ikas dezaten)

nahigo diat eztezala ezki'batü frantsesez (nahiago diat ez dezakala idatz frantsesez)

nahi nia be'ak galtua egin leza (nahi nuen berak galdera egin lezan/zezan)

aizuk nahi zia jun nendi (auzokoak nahi zian joan nendin)

Azken bi adibide hauetan, iraganekoan, “-n” atzizkia desagertu da. Hala ere, orainaldian ez da desagertu. Eskiulan, “-n” gabeko orainaldia ere entzun dut (*nahi dut jin dadi*). Ez dakit araurik denez, edo hiztun batetik bestera aldatzen denez.

Zuberoa osoan bezala, Jeruntzen subjuntiboa beste gisa batez ere egin daiteke: “-T(Z)EZ” (“-T(Z)EKO” batuaz).

Badik aspaldi erran zeitadiela jitez (Badu aspaldi erran zidatela etortzez / etortzeko)

Atzizki hau NOLA? galderari erantzuteko ere erabiltzen da (ikus 4.4.2. puntua).

4.5.6. Agintera

Hiru moldetara egin daiteke: aditz laguntzailea erabiliz, aditzaren erroa bakarrik erabiliz, edo trinkoen kasuan aditz berberarekin.

ehadila lotsa (ez izan beldur), *ehadila bildür* (ez hadila beldur/kezka)

erran izagük zerbait (erran iezaguk zerbait), *eman izek* (eman iezaiek)

eztezala har adiskide'ik ikhertü gabe (ez dezaala har [hik] adiskiderik iker-tu gabe)

eztezala uste egia dela (ez dezaala uste [hik] egia dela)

pharka! (barkatu!), *ez gaxki har oroz gainti* (ez ezak gaizki har oroz gainetik)

haigü! (etor hadi hona!, jaugi aditzetik), *to!* (har ezak, toka), *bego!* (askil!, egon aditzetik)

4.5.7. Opazkoa:

Eskiula eta Jeruntzen zubereraren egiazko opazkoa entzun omen daiteke: *ailitz/ailedi* eta *ailü/aileza*.

Zuberoako beste tokietan zaharkitua da, eta beharbada eman izan zaizkidan adibideak elizako liburuetarik datozen...

Jeruntzen, ordezkatzeko beste formak ere dira: SUBJUNTIBOA + BER eta BEHAR ERE + GEROALDIA

ailedi jin! Behar e' jinen dük (jinen / etorriko bada!)

egin dezan ber! Behar e' eginen dik (eginen badu!)

eder eginen dela esp'antxa diat (eder egitea espero [esperantza] dut)

4.6. Nor (nori) nork

Sarritan, aditz laguntzaileak NORI kasuaren marka galtzen du. Hala ere, Zuberoa osoan bezala joera hau ez da Lapurdi eta Baxenafarroan bezainbat hedatua:

gustin eztügüna, tzakürrer emaiten diagü (gustüan / gustokoa ez duguna, txakurrei ematen dugu → diegu)

kašik egün o'z merkhatzale txipier lotzen tük (ia egun oroz [egunero] merkatarari txikiei lotzen dituk → zazkie)

4.7. Zenbait partizipio bereziren amaiera:

Aditz gehienek “-TÜ” bukarea dute, edo aditz zaharren jatorrizko forma. Hala ere, gutxienez hiru salbuespen atzeman dut Jeruntzeko euskarari: *ahatze* (ahantzi, ahaztu), *hautse* (hautsi), *üntzün / üntzü* (entzun, -n gabe)

ÜNTZÜ: *üntzü diat gerla osua hasi'k dela* (entzun diat gerra osoa hasirik dela)

ÜNTZÜN: *etzieia seküla üntzün aiphutzen* (ez zitean sekula entzun aipatzen)

HAUTSE: *bortha hautse die* (atea hautsi ditek)

5. EGITURA BEREZIAK

5.1. Potentziala / AHAL

NOIZ	FORMA ESTANDARRA “EZAN” + IZAN	JERUNTZEN-ARRUNTEKOA	
		BAI	EZ
Orain	Ikus dezaket	<i>Ikhusten ahal düit</i>	<i>Eztüt ikhusten ahal</i>
Gero	Ikusi ahal izango dut	<i>Ikhusten ahalko düit</i>	<i>Eztüt ikhusten ahalko</i>
Lehenago	Ikusi ahal izan dut	<i>Ikhusi ahal ükhen düit</i>	<i>Eztüt ikhusi ahal ükhen</i>
Lehen	Ikus nezakeen	<i>Ikhusten ahal nin</i>	<i>Enin ikhusten ahal</i>

Potentziala edo ahaleraren adierazteko, Jeruntzen ez da “KE-dun” adizkirik erabiltzen (daiteke, dezake), ezta ekialdeko IRON aditzlaguntzailea ere.

Aldiz, ekialde handiko (Iparralde eta Nafarroa) ADITZA + “-T(Z)EN” + AHAL egitura erabiltzen da, Bizkaian eta Gipuzkoan ez bezala.

Ezekoa ez da EZIN erabiliz egiten, nominalizazioetan izan ezik:

ezin sothika = sotikatzeko gaitasunik eza

ezin elhestatü izigarri dük (ezin elestatu izatea izugarria duk)

5.2. Geroaldiaren marka

Zubereraz, aditz arrunten geroaldia “-ko” edo “-(r)en” atzizkiak erabiliz egin daiteke. Jeruntzen, ontsalaz “-en” atzizkia ez da kontsonante batez bukatzen diren aditzetan baizik erabiltzen ahal.

Aditzaren amaiera	Bizkaia, Gipuzko	Lapurdi, Nafarroa, Baxenafarroa	Zuberoa	Jeruntze
BOKALA: sortu hasi	-KO sortuko hasiko	-KO sortuko hasiko	-KO / -'EN <i>sorthüko / sorthü'en</i> <i>hasiko / hasi'en</i>	-KO <i>sorthüko</i> <i>hasiko</i>
KONTSONANTEA: egin	-GO egingo	-EN eginen	-EN <i>eginen</i>	-EN <i>eginen</i>

Hil aditzak “*hilen*” ematen du geroaldian. Jeruntzen, *sorthü'en* (sorturen) bezalako formak ez dira ohikoak, baina entzun daitezke.

Geroaldiaren “-(r)en” atzizkia jatorrizko forma omen da, eta “-ko” / “-go” berriena.

Hala ere, eskiulatar batek erran dit Eskiulan beti “-ko” / “-eko” erabiltzen zutela: *jineko nüik* (*jinen nüik* ordez). Barkoxen, *jinen nüik* erranen lukete.

Oroitu behar da aditz trinkoek orainaldiko “TEKE-dun” (*dateke*) eta “KE-dun” (*düke*) formak erabiltzen dituztela. Ikus 4.5.1. puntua.

5.3. -t(z)en atzizkiaren eraldaketa

Iparralde osoan bezala, “-n” batez bukatzen diren aditz guztiek “-ten” atzizkia “-iten” egiten dute, baita beste zenbait aditzek ere:

emaiten (ematen), *juiten* (“joaiten”, joaten), *egoiten* (egoten), *igaiten* (igaten, igoten), *joiten* (jotzen)

Salbuespena: *izaten*, *izateko* (ez dut behin ere “izaiten” edo “izaiteko” entzun)

Bestela, ohikoa da “Z”aren desagertzea, beti gertatzen ez bada ere:

ebilten (ibiltzen), *ekhartzen* (ekartzen), *ezartzen* (ezartzen), *igortzen* (igortzen, bidaltzen)

Gauza bera gertatzen da eratorririko atzizkiekin: *-T(Z)E'A*, *-T(Z)EKO*, *-T(Z)EZ*, ...

Oharra: *iseatü* (entseatu, saiatu) aditzarekin, *-T(Z)EN* ordez *-T(Z)IA* (nor nork) erabili behar da.

5.4. Aditzaren nominalizazioa

Arestian aipatu bezala (4.4.1. eta 4.4.2. puntuak), ontsalaz aditzaren nominalizazioak NOREN kasua eskatzen du:

NOR: *goxo zikük hi'e jitia* (gozoa zaiguk / zaigu hi jitea / etortzea)

hi'e ikhustia bertan (hire ikustea bertan / hi ikusi arte)

iseatü'en diat horren egitia (iseaturen diat horren egitea / saiatuko naiz hori egiten)

ikhastia ürhentü dik (ikastea urrendu / amaitu dik)

NORK: *eztik balio besten erraitik* (ez dik/du balio besteak errateak/esateak)

ZERTARA: *gaiza baten egite'a* (gauza bat egitera)

- ZERTARAKO: *oro'en jakiteko* (oro jakiteko), *behar dena'en egiteko* (behar dena egiteko)
 ZERTAZ: *i'us hi'e berrien ükeitez* (uroso/pozik hire berriak ukatez / izatez)

5.5. Adjektiboak eta izen arruntak

5.5.1. Adjektiboen marka

Ontsalaraz, adjektiboek ez dute markarik hartzen:

ei diik (eri duk/da, gaixo dago), *ei tiik* (eri dituk/dira, gaixo daude), *hanko tiik* (hangoak dituk)

Bestela, “-ik” atzizkiaren erabilpena ohikoa da:

einhe'ik da (unaturik/nekaturik da), *eginik i'us izateko* (eginik airoso/pozik izateko)

hilik da, ahua zabalik (ahoa zabalik), *plakan grabatü'ik diik* (plakan grabaturik duk)

ene galthuak harritü'k ützi zia (ene galtoak harriturik utzi zian)

mündia ertzotü'ik diik (mundua ero[turik] duk)

Hala ere, “-a” dun adjektiboak ere entzun daitezke:

eztük i'uša (ez duk urosa, ez dago pozik), *ederra diik* (ederra duk/da), *berri berria*

Izenei eransten zaien “-ZKO” atzizkiak “-KO” ematen du:

egiako isto'ia (egiazko istorioa), *izigarrikua* (izugarritzkoa)

5.5.2. Osotasuna

Izigarri (izugarri), *ezinago* eta *terrible* (frantsesetik) adberbioek OSO, BIZIKI, ARRAS eta antzekoak ordezkatzeko dituzte:

izigarri untsa (oso ongi), *izigarri famatia* (oso famatua), *be'o izigarria* (bero izugarria)

tristezia izigarrikua (oso tristezia handia), *izigarriko bü'ko mina* (izugarritzko buruko mina)

terrible gogor (ikaragarri gogorra), *terrible kuntent* (oso pozik), *ezinago ejer* (ezin ederrago)

Aski adberbioak NAHIKO beti ordezkatzeko du:

Aski azkar (nahiko azkarra), *badükegü aski lekhü* (nahiko lekurik ukanen / izango dugu)

Oharra: askotan, adjektiboak ez du markarik hartzen.

Adjektiboaren errepikapenez balia daiteke: *berri berria*, *xu'i xu'ia* (txuri txuria)

Zenbaki handiak eta urritasunaren adierazteko, *hanitx* (anitz) eta *güti* (gutxi) erabiltzen dira:

eskerrik hanitx (eskerrik asko), *badie putiko güti'k* (baditek mutiko gutxi(rik))

5.5.3. Alderaketak

Batuaren -AGO- ... BAINO egitura erabiltzen da, baina “-go ... beno” ahoskaturik. Adjektiboa mugagabeaz ezartzen da, eta bokal kontrakzioek “-ago” atzizkia murrizten dute:

artua handigo dük iga'n urthin beno (artoa handiagoa duk igaran / iragan urtean baino)

ho'i hobe dük ehaitia beno (hori hobe duk erailtzea baino)

bazter ezinago ederrak (bazter ezin ederragoak), *Frantzian beno merkigo* (Frantzian baino merkeago)

nahigo diat egin dezala (nahiago diat egin dezan), *zalhigo* ("zaleago", lasterrago, azkarrago)

alege'axigo dük (alegeraxeago duk), *merkexigo* (merkexeago)

GEHIAGO ordez, *habo'* (haboro) erabiltzen da:

bada bat beno habo' (bada bat baino gehiago), *berri habo'* (berri gehiago)

hi'u egün beno habo' (hiru egun baino gehiago)

habo' balio dik hola a'i gitin ti'okaz beno (gehiago balio dik horrela ari gaitzen tiroka baino)

BAKARRIK eta EZ... BESTERIK adierazteko, beti *baizik* ezezko batean sarturik erabiltzen da:

eztük bat baizik (ez duk bat baizik, bada bat bakarrik / soilik)

Gehiegizkoa beti *sobe'a* (sobera, GEHIEGI ordez) erabiliz egiten da, adjektiboekin izan ezik:

go'egi heltü dük Bordelè'at jiteko (goregi heldu duk Bordelera etortzeko)

GUTXIAGO: "*habo'*"-ren kontrakoa "*gütigo*" da.

u'ano gütigo (oraino gutxiago)

Azkenean, egitura berezi bat: *zortzi ehün milaz gañetik* (800.000 -tik gora / -z goiti / baino gehiago)

berrehün kilometraz gañetik (200 kilometra -tik gora / -z goiti)

badik ehün urthe beno habo' gañetik (badik 100 urte baino gehiago)

5.5.4. Zehaztu gabeko kopuruak

adiskide hanitx diat (adiskide anitz/asko dut), *badiat hanitx gaiza* (badut anitz gauza)

adiskide aphür diat (adiskide apur/gutxi dut), *eskola aphürreki* (eskola gutxirekin)

adiskide zunbat diat (adiskide zenbait dut), *eztakik elhe zunbat baizik* (ez zakik hitz zenbait baizik)

bazia hüllan metra bat hur (bazian metro bat ur inguru, *hüllan* = hurbil)

5.6. ERE adberbioa

Atal berezi bat egiten dut, lokuzio askotan erabiltzen baita eta bere ahoskera "E" bakar batera laburtzen baita: *e'*

Ezezkoetan, EZ partikula ez da entzuten:

e' (ere), *deü'se'* (deus ere ez), *ihu' e'* (ihor ere ez, nehor ere ez, inor ere ez)

beharre' (behar ere, beharrik), *bate'* (bat ere ez), *arrenkü'a'ik bate' gabe* (arregurarik batere gabe)

5.7. ANITZ, GUTXI eta PIXKA BAT

Eskerrik hanitx (eskerrik asko/anitz), *lan güti* (lan gutxi), *eskola aphürreki* (eskola gutxirekin)

Jeruntzeko PIXKA BATen baliokideak: *amiñi bat* (erabiliena), *aphür bat* (apur bat), *doi-doi*.

5.8. NAHI eta BEHAR

Hiru puntu berezi aipatzekoak dira: aditzaren kokapena erranaldian, aditz nominalizatuaren erabilpena eta bi aditz laguntzaileen erabilpena.

5.8.1. Kokapena

aditza gehienetan azken tokian ezartzen da, mendekoetan izan ezik.

behar diagü lagüntü (lagundu behar dugu), *nahi ziea bat egin* (bat egin nahi zitean / zuten)

halako'ik egiten denin, behar diagü zernahi egü'ki (halakorik egiten denean, zernahi iguriki behar dugu)

hortzak behar tüzü xahatü (hortzak xahutu behar dituzu)

Jehanek etzia nahi deüs jakin (Jehanek ez zian deus jakin nahi)

hi'u bühürzale ho'iek ezte deüsé' nahi jakin (hiru aurkari horiek ez ditek deus ere jakin nahi)

mé'ak nahi zia mé'ia berri bat egin (auzapezak herriko etxe berri bat egin nahi zian)

behar zieia egin hoge bat kilometra (hoge bat kilometra egin behar zitean)

bakhotzak behar likek bé phartia ükhen (bakoitzak behar likek bere parte ukan)

eztik behar harritü holako zerbait agitzen bada (eztik harritu behar horrelako zerbait gertatzen bada)

eztakiat zer erran nahi din (ez dakiat zer erran nahi duen)

eztitik lübü'iak i'akurri nahi (ez ditik liburuak irakurri nahi)

5.8.2. Aditz nominalizatua

-T(Z)IA. Entzun daiteke, baina ez da ohikoa.

nahigo diat mintzatzia (mintzatzea nahiago dut)

egite behar diat (egin behar dut)

5.8.3. Izan edo ükhen: NOR edo NOR NORK

Aditz laguntzaileak aditzaren jarrera du:

nahi nük jin (jin / etorri nahi nauk / naiz), *nahigo dük Pa'ise'at jin* (nahiago duk / da Parisera etorri)

eztük ihu e' nahi gibel jun (ez duk / da ihur / inor ere gibelerara joan nahi)

mañhatü behar nüzü (bainatu behar naiz)

deithü behar ükhen diat (deitu behar ukan / izan dut)

Lehen hiru adibide hauetan, NOR kasua erabilia da aditzak *jin* (etorri) eta *jun* (joan) direlako.

5.9. IZAN, JUN eta JIN ordezkatzeko

Sarritan, mugimendu bat adierazten delarik, *jun* (joan) eta *jin* (etorri) aditzak ez dira erabiliak. Beren ordezkari, *izan* erabiltzen da egitura berezi batean sarturik.

5.9.1. JIN ordezkatzeko: IZAN + NORA

hi'e aita izan zikük ikhustea (hire aita [etorri] zaiguk ikustera)
Baiuna'ik horra zia (Baionatik horra [etortzen] zian / zen)
azaro'entako horra zizkük gu'e bi lhobak (azarorako [etorriko] zaizkiguk gure bi lobak)
emazte bat horra dük egün o'z (emakume bat horra [etortzen] duk egun oroz)
adin batetan horra tük oro (adin batetan horra [heltzen / gertatzen] dituk oro)
 Jakina, *jin* ere erabil daiteke:
astizkenin bede'zia jinen zikük ikhustea (asteazkenean sendagilea etorriko zaiguk ikustera)
igantin jin tük (igandean etorri dituk)

5.9.2. JUN ordezkatzeko: IZAN + ZERI BÜ'Z (bürüz) / NORAT ARI IZAN

eztakiat zeri bü'z gi'en (ez zakiat zeri buruz [ari] garen / norantz goazen)
eztakiñat no'at a'i gi'en (ez zakinat norat ari garen)
 Egitura arruntaren bi adibide:
juiten zütia oihanetik xüxen (joaten zituan oihanetik zuzen)
bihar junen nitzok ikhustea (bihar joanen natzaiok ikustera)

5.10. Zenbait denborazko egitura

5.10.1. *Abiapuntuak: badük* (bada), *dila* (duela), *u'ai dila* (orain duela), *bazia* (bazen), *badik* (badu)

badik bi aste Pa'isen dela (badu bi aste Parisen dela)

5.10.2. Aditzekin

ondun (ondoan, ondoren), *gi'oztik* (geroztik), *-enaz gi'o* (-enez gero, -enetik)
aitzinetik (aitzin, aurretik, baino lehen), *beno lehen* (baino lehen)
arte/artiol/artino (arte, arteraino), *gabe* (baino lehen)
bezain sarri (bezain laster), *-eño* (-eno, -en bitartean)
mintzatü ondun, mintzatü gi'oztik, Pa'isen lanin a'i denaz gi'o (Parisen lanean ari denetik)
bede'ziak erran zeitan aitzinetik (sendagileak erran zidan aurretik), *jan aitzinetik* (jan aurretik)
gaia jin artiolartino (gaua etorri arte), *junen nük hu'a jin gabe* (joanen nauk hura etorri baino lehen)
ni ikhusi bezain sarri, jun dük (ni ikusi bezain laster, joan duk)
mintzatzen deño, behatzen nitzoki (mintzatzen den bitartean, behatzen natzaiok)

5.10.3. Denbora tarreak

ber denbu'an (ber denboran, aldi berean), *arte hortan* (bizkitartean), *bi egünez, gaiaz* (gauaz)
astelehenin arrasti'tan (astelehenean arrastiritan, astelehen arratsaldean)
Bilbon izan gütiük aste batez iga'nik (Bilbon izan gaituk aste batez iraganik)

goizanko u'en bakhotxa zia ürhentü zield'ik (goizeko oren bakoitza / batan zian amaitu zutelarik)
ene denbu'an (nire denboran / garaian)

5.10.4. Hurbiltasuna

hamar egün aitzinetik (10 egun lehenago), *iga'n astin* (iragan astean)
jakinen dizügü dagün egün ho'itan (jakinen dugu ondoko egunetan)
dagün astin (daigun / datorren astean), *ondoko astin* (ondoko astean)
bi egünen bü'in (bi egunen buruan, bi egun barne / barru)
90 urthe'i hüllantzen gütüük (90 urteri hurbiltzen gaituk)
aspaldin (aspaldian, aspaldi), *badik aspaldiko eztela jiten* (badik aspaldiko ez dela etortzen)
egünko egünin (egungo egunean, gaur egun)
lautan hoge'i eta hamarren altin (90en aldean / inguru)

5.11. Bakarrik

Jeruntzen -eta Zuberoa osoan ere nik uste- BAKARRIK ez da erabiltzen. Horren orde, nihaur, hihaur, bera, guhaur eta abarrak erabiltzen dira:
nihau' nüük (bakarrik nauk), *be'a düük* (bakarrik duk); *be'ak tüük* (bakarrik dituk)

6. LEXIKOA

Bistan dena, ez dut hiztegi oso bat emanen. Lagin bat izanen da, Jeruntzeko lexikoaren zenbait berezitasun erakusteko.

Hiru moldetako hitzak izan daitezke: ahoskera aldaketak dituzten hitzak, tokiko edo Zuberoako hitzak, eta kanpoko hitzak (frantsesetik edo biarnesetik gehienbat).

6.1. Aldaketa fonetikoak

Jeruntzen	baliokidea, itzulpena	Jeruntzen	baliokidea, itzulpena
<i>a'gi</i>	haragi	<i>ebili</i>	ibili
<i>a'i izan</i>	ari izan	<i>edi'en (atzaman)</i>	ediren, atzeman, aurkitu
<i>algar</i>	elkar	<i>egü'ki, egi'ki</i>	iguriki, itxaron, beha egon
<i>andé'ia</i>	anderea	<i>egüzaita</i>	ugazaita, aitabitxi
<i>aurhide</i>	haurride	<i>eiakhustü</i>	erakutsi
<i>a'zi</i>	arazi	<i>e'itarzün</i>	eritasun
<i>arrasti'</i>	arrastiri, arratsalde	<i>eñhe'ik</i>	unaturik, akiturik, nekaturik
<i>axe'i</i>	azeri	<i>ertzö</i>	ero
<i>bakhotx</i>	bakoitz, bakar	<i>esküñ</i>	eskuin, eskubi
<i>bardin</i>	berdin	<i>etxe'ki</i>	atxiki
<i>ba'tze</i>	baratze	<i>eza'i</i>	ezarri
<i>be'antü, be'ant</i>	berandu	<i>ezkuntü</i>	ezkondu
<i>be'hala</i>	berehala, azkar, laster	<i>gañen</i>	gainean
<i>bebezi</i>	“berhezi”, bereizi	<i>galthatü</i>	galdetu, eskatu
<i>bihamen</i>	biharamun	<i>gaxki</i>	gaizki
<i>bürdüñ</i>	burdin	<i>gaxto</i>	gaizto
<i>bü'zagi</i>	buruzagi	<i>gaxtoke'ia</i>	gaiztokeria
<i>e'akutsi</i>	erakutsi	<i>gi'o</i>	gero

Jeruntzen	baliokidea, itzulpena	Jeruntzen	baliokidea, itzulpena
<i>go'antzi</i>	goraintzi	<i>nausi</i>	nagusi
<i>go'atü</i>	goratu, igan, igo	<i>nuiz</i>	noiz
<i>hanitx</i>	anitz, asko	<i>odeizü</i>	hodeitsu
<i>heben</i>	hemen	<i>ondun</i>	ondoan, ondoren
<i>heltü</i>	heldu	<i>phakatü</i>	pagatu, ordaindu
<i>hobe'na</i>	hoberena, onena	<i>pharkatü</i>	barkatu
<i>huñ</i>	oin	<i>phüntü</i>	puntu
<i>hürrün</i>	urrun	<i>putiko</i>	mutiko
<i>i'ain</i>	iraun	<i>teno'e</i>	tenore, ordu, garai
<i>i'akurri</i>	irakurri	<i>txestatü</i>	dastatu, jastatu
<i>i'aman</i>	eraman	<i>txilintxatü</i>	zintzilikatu
<i>igan</i>	igan, igo	<i>txosta(ka)tü</i>	jostatu
<i>igá'n</i>	igaran, iragan, igaro	<i>u'ai, o'ai</i>	orain
<i>i'osi</i>	erosi	<i>u'ano</i>	oraino, oraindik
<i>i'un</i>	eroan	<i>üdü'i</i>	uduri, irudi
<i>ixker</i>	ezker	<i>u'en</i>	oren, ordu
<i>lotü</i>	lortu	<i>ubu'e</i>	ohore
<i>jalkbi</i>	jalgi, atera	<i>ükhen</i>	ukan (izan, eduki)
<i>kharruskatü</i>	karrakatu, urratu	<i>üli, ili</i>	euli
<i>khentü</i>	kendu	<i>ürrin</i>	ürrin, usain
<i>kuntre</i>	kontra	<i>urthuki</i>	jaurtiki, bota
<i>labu'ai</i>	laborari	<i>xahatü</i>	xahutu, garbitu
<i>lübü'</i>	lübüri, liburu	<i>xilo</i>	zulo
<i>mahañ</i>	mahai	<i>xüxentü</i>	zuzendu
<i>mithil</i>	mutil	<i>zunbat</i>	zenbat
<i>muztü</i>	moztu		

6.2. Tokiko hitzak

Jeruntzen	baliokidea, itzulpena	Jeruntzen	baliokidea, itzulpena
<i>agitü</i>	gertatu	<i>begi'atü</i>	begiratu, = gorde
<i>ahal bezañ bertan</i>	ahal bezain laster	<i>beharre'</i>	behar ere, beharrik, zorionez
<i>ahatze</i>	ahantzi, ahaztu	<i>behatü (nor nori)</i>	entzun, adi egon
<i>aibaltü (nor)</i>	afaldu + nor nork	<i>behezi</i>	konpondu, bereizi
<i>aitañi</i>	aitatxi, aitona	<i>bera</i>	bera, = berdina
<i>aitzina</i>	aurrera	<i>ber gaiza</i>	ber gauza, gauza bera
<i>aitzinda'i</i>	aitzindari, arbaso	<i>beste aldez</i>	bestela
<i>-en aitzinin</i>	-en aitzinean/aurrean	<i>bizilekhü</i>	helbide
<i>alderrri</i>	lurralde	<i>bizitegi</i>	apartamendu
<i>amañi</i>	amatxi, amona	<i>bizizale</i>	biztanle
<i>amiñi bat</i>	pixka nat	<i>borrokatze</i>	borroka
<i>arrajin</i>	itzuli, bueltatu	<i>bortü</i>	mendi handia
<i>arrenkü'a</i>	arregura, kezka, arazo	<i>bozkazale</i>	hautesle
<i>a'uz</i>	arauz (ziurrenik)	<i>deü'se'</i>	deus ere ez
<i>azkar</i>	indartsu	<i>dolü ükhen</i>	dolu izan, sentitu
<i>barda</i>	bart	<i>ebi</i>	eurri
<i>barreatü</i>	hedatu, zabaldu	<i>eder, ejer</i>	eder, polit
<i>bate'</i>	bat ere ez	<i>ekhartü, ekharri</i>	ekarri
<i>ba'x-bátxa</i>	baratx, emeki, astiro	<i>elhestatü</i>	elestatu, mintzatu
<i>be'a</i>	bera, = bakarrik	<i>egoliar</i>	biztanle
<i>bede'zi</i>	sendagilea	<i>egon</i>	bizi, geratu

Jeruntzen	baliokidea, itzulpena	Jeruntzen	baliokidea, itzulpena
<i>egongia</i>	bizilekua	<i>lanin a'i</i>	lanean ari, lan egin
<i>egün</i>	gaur egun	<i>lili</i>	lore
<i>elkhi</i>	jalgi, atera, hartu	<i>lotsa</i>	beldur
<i>esküitik hitz</i>	eskutitz, gutun	<i>mañhatü</i>	bainatu
<i>eskütitz</i>	eskutitz, gutun	<i>mintzaje, mintzo</i>	mintzaira, hizkuntza
<i>ezki'bütegi</i>	ezkiribütegi, artxibotegi	<i>nihau</i>	nihaur, ni bakarrik
<i>gaitz</i>	gaizto, zail	<i>nun e' beita</i>	non ere baita, ziurrenik
<i>galthua</i>	galdoa, galdera	<i>ostaldi</i>	orrialde
<i>gibel</i>	atze	<i>othoi</i>	otoi, mesedez, arren
<i>gogotü</i>	pentatu, asmatu	<i>prefosta!</i>	noski!
<i>goxoki</i>	gogotik	<i>pikarra! gorri</i>	biluzik
<i>haidü' izan</i>	aiduru egon, itxaron	<i>phü'</i>	pürü, bederen, gutxienez
<i>handike'ia</i>	handikeria, urguilu	<i>phürki, aphürreki</i>	apurki, ia ez, apurrekin
<i>hatsarre, haste</i>	hastapena, hasiera	<i>saldo</i>	talde
<i>heltü bada</i>	behar bada, agian	<i>sobe'a</i>	sobera, gehiegi
<i>herrizain</i>	ertzain	<i>so egin (n ni nk)</i>	begiratu
<i>hiltzia</i>	heriotza	<i>sotikatü</i>	mugitu, astindu
<i>hizki</i>	eskutitz, gutun	<i>soz izan</i>	begiratu
<i>ho'ialde</i>	orrialde	<i>tipi, txipi</i>	ttipi, txiki
<i>hügügarri</i>	higuingarri, jasanezin	<i>üdü'ila</i>	üdüriala, = dirudienez
<i>hüllan</i>	hurbil	<i>ühatza</i>	erreka
<i>igorri</i>	bidali	<i>ükü'atü</i>	eküratü, = gelditu
<i>ihardespen</i>	erantzun	<i>ülhüntze</i>	arrats
<i>ibuntik e'</i>	ihundik / inondik ere ez	<i>ürhentü</i>	urrendu, = bukatu
<i>ihur</i>	nehor, inor	<i>ürhentze</i>	bukaera, amaiera
<i>ikha' izan</i>	ikara / dardarka ari izan	<i>üska' eman</i>	euskaraz egin, jakin
<i>ikhusbide</i>	froga	<i>üska'z a'i</i>	euskaraz ari, egin
<i>itsuske'ia</i>	itsuskeria, zikinkeria	<i>üsin</i>	usaian, normalean
<i>jarri</i>	jarri, = eseri	<i>ützüli</i>	irauli
<i>jatekua</i>	jatekoa, janaria	<i>üzü</i>	sarri
<i>jin</i>	etorri	<i>xahü</i>	garbi
<i>kasü!</i>	kontuz!	<i>xehetarzün</i>	xehetasun
<i>khaldü</i>	kolpe	<i>xiberutarra</i>	zuberera
<i>-en khantin</i>	ondoan, hurbil	<i>zañ</i>	zain, erro, sustrai
<i>khausitü</i>	lortu, erdietsi	<i>zühain</i>	zuhaitz
<i>koblak'ia</i>	koblakari, bertsolari	<i>zühürtze</i>	zuhurtasun
<i>laidogarri</i>	nardagarri	<i>zalbe</i>	laster, azkar
<i>laket izan</i>	pozik egon	<i>zalbhetarzün</i>	bizitasun, zorrotzasun
<i>-tik landa</i>	-en ondoren	<i>zernahi</i>	edozer

6.3. Kanpoko hitzak

Jeruntzen	baliokidea, itzulpena	Jeruntzen	baliokidea, itzulpena
<i>aisa, aise</i>	aise, errex, erraz	<i>arrazu</i>	arrazoi
<i>akort izan</i>	ados izan	<i>baliu</i>	balio
<i>alkhate</i>	alkate	<i>batü</i>	baratu, = geratu
<i>arra + aditza</i>	berriz, ber + aditza	<i>bortha</i>	porte, = ate
<i>arranjatü</i>	arranger, = konpondu	<i>botü'a</i>	voiture, auto
<i>arrapostia egin</i>	erantzun, ihardetsi	<i>enthelegatü</i>	ulertu, aditu
<i>arrapostü eman</i>	erantzun, ihardetsi	<i>enthelegatzia</i>	adimena

Jeruntzen	baliokidea, itzulpena	Jeruntzen	baliokidea, itzulpena
<i>erredüšitü</i>	réussir, = lortu / ardietsi	<i>ofizio</i>	lanbide
<i>errejent</i>	irakasle	<i>paper, pape'a</i>	paper, papera
<i>esp'antxa</i>	esperantza	<i>phensatü</i>	pentsatu
<i>estonatü/estunatü</i>	s'étonner, = harritu	<i>ph'estatü</i>	perestatü, = prestatu
<i>ezkapi</i>	ihes egin	<i>phorrokatü</i>	pourrir, = usteldu
<i>ezki'batü</i>	escribir, = idatzi	<i>phuzu</i>	poison, = pozoin
<i>ezki'bü</i>	ezkiribü, gutun	<i>pipatü</i>	zigarreta erre
<i>godalet</i>	gobelet, = edalontzi	<i>plañitü</i>	se pleindre, = kexatu
<i>i'us</i>	heureux, = uros / pozik	<i>plazer ükhen</i>	gustuko ukan
<i>juntatü</i>	juntar, = batu	<i>pott</i>	potu (biarnesetik), = musu
<i>kade'a</i>	kadera, = aulkia	<i>segür</i>	seguru
<i>khamba'</i>	ganbara, gela	<i>segürtantxa</i>	ziurtasun
<i>khanbiatü</i>	kanbiatu, aldatu	<i>sekreta'ia</i>	sekretaria, idazkaria
<i>kharreiatü</i>	ekarri, eraman	<i>solamente</i>	bakarrrik, baizik
<i>kharrika</i>	carrere (biarnesez), = kale	<i>terrible</i>	izugarri, asko, oso
<i>ko'aje</i>	courage	<i>tratiümenta</i>	tratamendu
<i>ko'si lehena</i>	lehengusu	<i>txerkhatü</i>	chercher, = bilatu
<i>kunten(t)</i>	content, = pozik	<i>üsatü</i>	usar, = erabili
<i>lete'a</i>	lettre, = gutun	<i>xantza</i>	chance, zorte
<i>male'uski</i>	zoritarrez	<i>zerbütxü</i>	zerbitzu
<i>maliür</i>	malheur, = zoritar	<i>zerrailü</i>	hesi
<i>me'a</i>	maire, alkatea	<i>zerrategi</i>	presondegi
<i>me'ia</i>	mairie, = udal / herriko etxea	<i>zerratü</i>	cerrar, = hetsi / itxi
<i>mi'akülü</i>	mirakulu, mirari		

6.4. Zenbakiak

0	<i>zero</i>	6	<i>sei</i>	20	<i>hoge</i>	80	<i>lautan hoge</i>
1	<i>bat</i>	7	<i>zazpi</i>	21	<i>hoge eta bat</i>	100	<i>ehün</i>
2	<i>bi, biga</i>	8	<i>zortzi</i>	40	<i>berhoge</i>	1000	<i>mila</i>
3	<i>hi'u</i>	9	<i>bede'atzü</i>	60	<i>hi'utan hoge</i>	1000000	<i>miliu bat</i>
4	<i>lau</i>	10	<i>hamar</i>	61	<i>hi'utan hoge eta bat</i>		
5	<i>bost</i>	11	<i>hameka</i>	71	<i>hi'utan hoge eta hameka</i>		

Oharra: - *Zenbat hartü dük? Biga.* ("2" zenbakia bakarrrik denean)
 - *Zer hartü dük? Bi sagar.* ("2" zenbakia hitz arrunt batekin)
lehena (lehenengoa), *bigerrrena* (bigarrena), *hi'ugerrrena* (hirugarrena), ...

6.5. Hilabeteak

1.	<i>Urtha'ila</i>	4.	<i>Aphi'la</i>	7.	<i>Üztaila</i>	10.	<i>Ürrieta</i>
2.	<i>Ba'nthaila</i>	5.	<i>Maiatza</i>	8.	<i>Agorrila</i>	11.	<i>Aza'ua</i>
3.	<i>Martxua</i>	6.	<i>Arramaiatza</i>	9.	<i>Setemia</i>	12.	<i>Abentia</i>

6.6. Egunak eta orenak

astelehena, astehartia, astizkena, ostegüina, osti'ala, neskenegüina, igantia egün (gaur egun), *gaur* (gaur gauean), *egüerdi / egüherdi* (eguerdi), *gaiherdi* (gauerdi)
u'en bakhotxa'en altin (oren bakoitzaren aldean / ordu bata inguruan)

bi u'enetan karta ments hor gütükek (bi orenak laurden gutxitan hor izanen gaituk)

Ohar zaitetz bokalen arteko H horretaz: *asteHartia, egüHerdi, gaiHerdi*.

6.7. Herrien izenak

Jeruntze eta Eskiula alboko herrien izenen zerrenda ematen dut. Gehienak euskal etxalde euskaldunak dituzte (ikus 1.2. puntua).

Frantsesez	“Jeruntzeraz”	Batuaz
Arette	<i>E'ta</i>	Areta, Ereta
Lanne	<i>Landa</i>	Landa
Aramits	<i>A'mitze</i>	Aramitze
Ance	<i>Ahantze?</i>	Arhantze
Féas	<i>Ihaxe</i>	Inhaze
Saint Pée	<i>Sempe'</i>	Senpere?
Oloron	<i>Olu'</i>	Olorue
Moumour	<i>Mumur</i>	Mumur
Orin	<i>Orrin</i>	Orrin
Géronce	<i>Je'unt(z)e</i>	Jeruntze
Saint Goin	<i>Sengueñe</i>	Sengueñe
Geüs	<i>Jeüze</i>	Ustasü
Aren	<i>Alen</i>	Arren

6.8. Herritarsunak

Jeruntzen	baliokidea, itzulpena	Jeruntzen	baliokidea, itzulpena
<i>üskaldüna</i>	euskalduna	<i>alemanta</i>	alemana
<i>fran(t)sésa</i>	frantsesa	<i>italiana</i>	italianoa
<i>españula</i>	espainola	<i>je'unztarra</i>	jeruntzarra
<i>biarneša</i>	biarnesa	<i>barkoxtarra</i>	barkoxtarra
<i>angeleša</i>	ingelesa	<i>ame'ikaña</i>	amerikanoa
<i>larrañeko</i>	larrainekoa		

6.9. Giza gorputza:

Jeruntzen	baliokidea, itzulpena	Jeruntzen	baliokidea, itzulpena
<i>ahua</i>	ahoa	<i>bizkarra</i>	bizkarra
<i>alua / xoxua</i>	alua	<i>bo'ntia</i>	“borontea”, kopeta
<i>azpia</i>	izterra	<i>bü'ia</i>	burua
<i>aztala</i>	aztala	<i>büztana / piztoleta</i>	zakila
<i>aziüzkülia</i>	atzazala	<i>ehia</i>	eria / hatza
<i>begik</i>	begiak	<i>eskia</i>	eskua
<i>begi bilhuak</i>	bekainak	<i>ezpañak</i>	ezpainak
<i>begihartia</i>	begitartea / aurpegia	<i>huña</i>	oina
<i>bebarria</i>	belarria	<i>huñekik</i>	behatzak
<i>belhaña</i>	belauna	<i>khorpitza</i>	gorputza
<i>besaikua</i>	ukondoa	<i>khoskola'ik</i>	barrabilak
<i>besondua</i>	besondoa	<i>lepho gaña</i>	garondo / garaitea
<i>besua</i>	besoa	<i>lephua</i>	lepoa
<i>bilhuak</i>	ilea	<i>mibia</i>	mihia
<i>bizarra'entakua</i>	kokotsa	<i>piñeta</i>	eskuturra
<i>bizkar ezürra</i>	bizkar ezurra	<i>sabela</i>	sabela

Jeruntzen	baliokidea, itzulpena	Jeruntzen	baliokidea, itzulpena
<i>saihets ezürrak</i>	saihets ezurrak	<i>üzkü maxelak</i>	ipurmasaila
<i>südürr gaña</i>	kopeta	<i>xuña / espalda</i>	sorbaldala
<i>südürra</i>	sudurra	<i>zankho gaña</i>	orkatila
<i>südürr xilua</i>	sudurtziloa	<i>zankho sagarra</i>	zango sagarra
<i>üzkia</i>	ipurdia	<i>zankhua</i>	zangoa
<i>üzkü xilua</i>	uzkia		

6.10. Erran-moldeak

Zenbait erran-molde eta erranaldi bakun emanen dut:

Frantsesez	“Jeruntzeraz”	Batuaz
<i>Üska’ untsa emaiten dik.</i>	Eüskara ontsa emaiten dik.	Euskara ontsa ematen dik / zakik.
<i>Nula hiz? Untsa.</i>	Nola hiz? Ontsa.	Nola zaude? Ongi, ondo.
<i>Trempü gaxtun dük.</i>	Trenpü gaxtoan dük.	Forma txarrean duk.
<i>Haurrer lotü ziek.</i>	Haurrer lotü ziek.	Haurrei eraso egin ziek. (= die+toka)
<i>Gorri pikarrai ikhusi diat.</i>	Gorri pikarrai ikusi diat.	Biluzik ikusi diat.
<i>Bethi paseiun?</i>	Beti paseiun?	Beti ibiltzen?
<i>Egün hun, bai zu’i e’ pharte hun!</i>	Egün hon, bai zuri ere parte hon!	Egunon, bai zuri ere parte on!
<i>Osagarri hun eta ez adio’ik.</i>	Osagarri hon eta ez adiorik.	Ongi izan eta ikusi arte.
<i>Izan untsa eta berriz arte.</i>	Izan ontsa eta berriz arte.	Izan ongi eta berriz arte.
<i>Gogo hunez.</i>	Gogo honez.	Gogotik, gustura.
<i>Abantxü ürhentü’ik dik.</i>	Abantxü ürrrentürik dik.	Ia urrendu (amaitu) dik.
<i>Hu’a ederretä’ik ezkapü dük.</i>	Hura ederretarik ezkapü dük.	“Celui-là, il l’a échappée belle.”
<i>Zè teno’e da? U’en bakhotxa.</i>	Zer tenore da? Oren bakotxa.	Zer ordu da? Ordu bata.

7. IPUIN BAT

Jean-François Cerquand-en “Ipar Euskal Herriko Legenda eta Ipuinak” bilduman, Eskiular batek kontatu ipuin bat atzeman nuen. Ene osabari berak kontatuko zukeen bezala idatz zezala eskatu nion. Egin zuen, eta igorri zidan honako oharrarekin: *ene gi’sa ezki’batü diat, Eskiulako mudun* (nire era-
ra idatzi diat, Eskiulako moduan).

Hiru bertasio emanen ditut: lehena Jeruntzen bezala ahoskatua, bigarrena zubereraz idatzia Euskaltzaindiaren gomendioak kontuan hartuz, eta hirugarrena batuaz.

7.1. Jeruntzeko/Eskiulako bertasioa

Tartaroa züzün gizun handi bat bezala. Begi bat baizik etzizün, eta hu’a bo’nti’en erdin. Indar handi bat bazizün eta etzizün jatekuan deü’sé’ khristien a’gia bezain hunik. Hen ürrina senditzen zizün hürrüntik, eta atzamaiteko zernahi egiten. Bortin zizün be’ egongia, oihan baten bazterrín. Gai batez, gizun gazte azkar bat agitü züzün ha’en etxin alojamentü galthatzen. Tartaroa paseiun beitzen, emaztik errezebitü zizün eta erran ziozün:

- *Borda hau baizik eztit beste etxé’ik, bena aski bazaizü ardi ho’ien artin lo eginen düzü.*
- *Bai, gogo hunez, ezinago eñhe’ik nüzü.*

Hantik zalhe heltü züzün Tartaroa eta sartzin borta’en zerratzez erran ziozün:

- *Assi qu’ey a car de christia (biarnesetik itzulirik: heben dük khristino a’gia).*

Deja aihaltü'ik beitzen, bi ardi janik, erran zioziün gizun gazte horri:

– *Hi biharko, ahu'en xahatzeko.*

Eta süthondun etzan bezaiñ sarri lo zurrunka hasi züziün.

Zer egiten dü ordin khristik? Harritü'ik, ikhustez galdü'ik zela, bürdüñ bat süthondun beitzen, gorri a'zten dizü eta Tartarod'i begitik sartzen diozü. Arrama bateki jaikitzen düzü, erraitez:

– *Hau, khristia'en kolpia dük, bena phakatüko deitak.*

Bé'hala undun juiten ziozü, bena hu'a bethi eskapatzen zioziün ardi saldo handi horren artin. Ikhusi'k etzila atzamaiten ahal, Tartarook hartzen dizü ardi bat, bordatik kampo egorten eta be'a han zela'ik, bi zankun artetik bestik üzten tizü igá'ite'a, bedé'a bedé'a, segürtatzen zela'ik etzela deüse ardi baizik jalkhitzen. Atzamanik zela phentsatzen dizü gizun gaztik eta arriskatzen dizü be' bü'ia ardi larrü bat eza'ik bizkarrin, lau hatxetan ebiltez ardien artin baduzü. Tartaroa mesfidatü züziün, bena etzioziün ba'tü eskitan larria baizik, bestia zalhe kampilat ig'an beitzen.

Ordin, emaztia eta biak jarraitzen ziotzü. Gaxo khristik seküla etzizüün ed'eiten ahal be' bidia, zumbat nahi txerkhatü'ik, borda'en üngü'in. Tartarod'en emaztik erraiten diozü:

– *To erhaztün hau, ezar ezak ehi batetan eta ordin edi'enen dük bide huna.*

Khristik hala egiten dizü, bena ehaztüna haiñbesté'ki hasten düzü oihüz: "heben niz, heben niz".

Tartaroa, ordin, lasterka juiten düzü gida horren undun, eta muthikuk, ikhusi'k bertan hatzamanik zela, ideki nahi zizüün ehaztüna, bena etzizüün egin ahal ükhen. Muzten dizü ehia eta urthukitzen be' ehaztüna'iki baxa baten behe'a, leze arte bateta'.

Hantik e' ehaztüna mintzo züziün: "heben niz, heben niz". Tartaroa botz ha'i jarraikitzen beitzen, builtan juiten düzü baxa behe'a eta han larrützen düzü.

Oharra: kontalaria iragan urrunetik hurbilera iragaten da.

7.2. Zubererazko bertsioa

Tartaroa züziün gizon handi bat bezala. Begi bat baizik ez zizün, eta hura borontearen erdian. Indar handi bat bazizün eta ez zioziün jatekoan deus ere kiristien aragia bezain honik. Haien ürrina senditzen zizün hürrüntik, eta atzamaiteko zernahi egiten. Bortüan zizün bere egongia, oihan baten bazterrean. Gaü batez, gizon gazte azkar bat agitü züziün haren etxean alojamentü galtatzen. Tartaroa paseiun beitzen, emazteak errezibitü zizün eta erran zioziün:

– *Borda hau baizik ez dizüt beste etxerik, bena aski bazaizü ardi horien artean lo eginen düzü.*

– *Bai, gogo honez, ezinago einerik nüzü.*

Hantik zale heltü züziün Tartaroa eta sartzean bortaren zerratzez erran zioziün:

– *Assi qu'ey a car de christia¹ (heben dük kiristino aragia).*

Deja aihaltürik beitzen, bi ardi janik, erran zioziün gizon gazte horri:

– *Hi biharko, ahoaren xahatzeko.*

Eta sütondoan etzan bezain sarri lo zurrunka hasi züziün.

¹ Tartaroa biarnesez mintzatu da.

Zer egiten dü ordüan kiristiak? Harritürik, ikustez galdürik zela, bürdün bat sütondoan beitzen, gorri arazten dizü eta Tartaroari begitik sartzen diozü. Arrama bateki jaikitzen düzü, erraitez:

– Hau, kiristiaren kolpea dük, bena pakatüko deitak.

Berehala ondoan joaiten ziozü, bena hura beti eskapatzen ziozün ardi saldo handi horren artean. Ikusirik ez züala atzamaiten ahal, Tartaroak hartzen dizü ardi bat, bordatik kanpo igorten eta bera han zelarik, bi zankoen artetik besteak üzten ditizü igaraitera, bedera bedera, segürtatzen zelarik ez zela deüs ere ardi baizik jalkitzen. Atzamanik zela phentsatzen dizü gizon gazteak eta arriskatzen dizü bere büria ardi larrü bat ezarririk bizkarrean, lau hatxetan ebiltez ardiaren artean badoazü. Tartaroa mesfidatü züzün, bena ez ziozün baratü esküetan larrüa baizik, bestea zale kanpoalat igaran beitzen.

Ordüan, emaztea eta biak jarraitzen ziotzü. Gaxo kiristiak seküla ez zizün edireiten ahal bere bidea, zenbat nahi txerkatürik, bordaren üngürüan. Tartaroaren emazteak erraiten diozü:

– To eraztün hau, ezar ezak eri batetan eta ordüan edirenen dük bide hona.

Kiristiak hala egiten dizü, bena eraztuna hainbestereki hasten düzü oihüz: “heben niz, heben niz”.

Tartaroa, ordüan, lasterka joaiten düzü gida horren ondoan, eta mutikokak, ikusirik bertan atzamanik zela, ideki nahi zizün eraztuna, bena ez zizün egin ahal üken. Mozten dizü eria eta urtukitzen bere eraztünareki baxa baten behera, leze arte batetara.

Hantik ere eraztuna mintzo züzün: “heben niz, heben niz”. Tartaroa botz hari jarraitzen beitzen, builtan joaiten düzü baxa behera eta han larrützen düzü.

Oharra: erran behar da zubereraren idazkera normalizatua zubereraren ahoskera eta batuaren arauen arteko erdibidea dela. Beraz, zubereraren ahoskeratik urruntzen da, baina hiztun ez zuberotarrak laguntzen ditu.

7.3. Euskara batuazko bertsioa

Tartaroa zen gizon handi bat bezala. Begi bat baizik ez zuen, eta hura borontearen (fronte, kopeta, bekoki) erdian. Indar handi bat bazuen eta ez zitzaion jatekoan deus (ezer) ere giristien haragia bezain onik. Haien urrina senditzen zuen urrundik, eta atzemateko (aurkitzeko) zernahi egiten. Mendian zuen bere egongia (bizilekua), oihan baten bazterrean. Gau batez, gizon gazte azkar bat gertatu zen haren etxean alojamendu galdetzen (eskatzen). Tartaroa paseoan zenez, emazteak errezibitu zuen eta erran (esan) zion:

– Borda hau baizik ez dut beste etxerik, baina aski bazaizu ardi horien artean lo eginen (egingo) duzu.

– Bai, gogo onez, ezinago unaturik (nekatu, akitu) naiz.

Handik laster heldu zen Tartaroa eta sartzean atearen zerratuz (hetsiz, itxiz) erran zion:

– Assi qu’ey a car de christia (hemen duk giristino haragia).

Jadanik (dagoeneko) afaldurik zenez, bi ardi janik, erran (esan) zion gizon gazte horri:

– Hi biharko, ahoa xahutzeko (garbitzeko).

Eta sutondoan etzan bezain sarri lo zurrunka hasi zen.

Zer egiten du orduan giristiak? Harriturik, ikusiz galdurik zela, burdin bat sutondoan zenez, gorri arazten du eta Tartaroari begitik sartzen dio. Arrama (garrasi) batekin jaikitzen da, erranez (esanez):

– Hau, giristiaren golpea duk, baina pagatuko didak.

Berehala ondoan joaten zaio, baina hura beti eskapatzen zitzaion ardi talde (artalde) handi horren artean. Ikusirik ez zuela atzematen (aurkitzen) ahal, Tartaroak hartzen du ardi bat, bordatik kanpo igortzen (bidaltzen) eta bera han zelarik, bi zangoen artetik besteak uzten ditu igaratera (iragatera, pasatzero), banan banan, segurtatzen zelarik ez zela deus ere ardi baizik jalkitzen. Atzemanik zela pentsatzen du gizon gazteak eta arriskatzen du bere burua ardi larru bat ezarririk bizkarrean, lau hatzetan ibiliz ardien artean badoa. Tartaroa mesfidatu zen, baina ez zitzaion baratu (geratu) eskuetan larrua baizik, bestea laster kanpora igaran (iragan, igaro) baitzen.

Orduan, emaztea eta biak jarraikitzen zaizkio. Gaixo giristiak sekula ez zuen edireten (aurkitzen) ahal bere bidea, zenbat nahi txerkaturik (bilaturik), bordaren inguruan. Tartaroaren emazteak erraten (esaten) dio:

– To eraztun hau, ezar ezak eri (hatz, behatz, atzamar) batean eta orduan edirenen (atzemanen, aurkituko) duk bide ona.

Giristiak hala egiten du, baina eraztuna hainbesterekin hasten da oihuz: “hemen naiz, hemen naiz”.

Tartaroa, orduan, lasterka joaten da gida horren ondotik, eta mutikoak, ikusirik bertan atzemanik (harrapaturik) zela, ireki (kendu) nahi zuen eraztuna, baina ez zuen egin ahal ukan (izan). Mozten du eria eta jaurtikitzen bere eraztunarekin baxa (amildegi) baten behera, leze arte batera.

Handik ere eraztuna mintzo (mintzatzen) zen: “hemen naiz, hemen naiz”. Tartaroa botz hari jarraikitzen zitzaionez, builtan joaten da baxa behe-
ra eta han larrutzen (hiltzen) da.

Orain, lehen eta azken bertasioak alderatu...

LABURPENA

Iparraldean gizaldi berriei euskararen transmisioaren etena oso errealitate eza-
guna da, lurralde historiko gehienez egiaztatua. Arazoa bazter-eremuan are
handiagoa da, non Euskal Herritik kanpoko lurralde euskaldun baten euskal
izaera ere zalantzan ezar daitekeen. Hauxe da Jeruntze herri biarneseko auzo
euskaldunaren kasua, zeinetan joera larriagoa izan baita baserriaren hustea-
rengatik.

Nire familiak, zeinen jatorria Jeruntzeko bazterra den, ereduari jarraitu dio.
Niri doakidanez, Euskal Herritik at hazirik bainintzen, nerabezaro berantean
hasi nintzen euskarari hurbiltzen, nafar lapurteraz gainera... edo manexez,
nire familian diogun bezala. Gero, hala ere, zuberera berreskura nezakeen nire
askazien laguntzari esker, bereziki osaba Johañerena.

Lan honetan, Jeruntzeko euskararen deskribapena agertzen da. Hizkuntzalaria ez naizenez, argibideen sailkapena nire moduan egin dut, eta
hizkuntza ontsa azalduko duten esperantza dut: egoera orokorra, fonetika,
deklinabideak, aditza, gramatika egiturak eta lexikoa. Adibide guztiak, hizki
etzanaz idatzirik, jatorrizkoak dira.

RESUMEN

La no transmisión del eusquera a las nuevas generaciones en Iparralde es una realidad bien conocida, comprobada en la mayoría del territorio histórico. El problema es aún mayor en zona periférica, donde incluso se puede poner en duda la vasquitud de un territorio vascófono fuera del País Vasco. Este es el caso de la aldea vasca de Géronce, pueblo bearnés, en el que el fenómeno se ha visto amplificado por el éxodo rural.

Mi familia, oriunda de la aldea de Géronce, no ha sido una excepción a la regla. Por mi parte, dado que me crié fuera del País Vasco, empecé a familiarizarme con el eusquera tarde en la adolescencia, además en su forma navarro-labortana... o manech, como se suele decir en mi familia. No obstante, pude más tarde reapropiarme el suletino gracias a mis familiares, principalmente mi tío abuelo Juan.

En el artículo se da una descripción del eusquera de Géronce. Ya que no soy lingüista, he clasificado la información a mi manera, esperando que dé una buena idea del idioma: situación general, fonética, declinaciones, verbo, estructuras gramaticales y léxico. Todos los ejemplos, en letra cursiva, son auténticos.

RÉSUMÉ

La non transmission du basque en Iparralde aux nouvelles générations est une réalité bien connue, vérifiée sur la majorité du territoire historique. Le problème est encore plus important en périphérie, là où l'on peut mettre en doute la basquitude même d'un territoire bascophone hors Pays Basque. Tel est le cas du hameau basque de Géronce, village béarnais, où le phénomène s'est vu amplifié par l'exode rural.

Ma famille, originaire du hameau de Géronce, n'a pas échappé à la règle. Pour ma part, ayant grandi hors du Pays Basque, je n'ai commencé à me familiariser avec le basque que tard dans l'adolescence, qui plus est dans sa forme navarro-labourdine ... ou manech, comme l'on dit dans ma famille. J'ai néanmoins pu par la suite me réapproprier le souletin grâce à mes proches parents, principalement mon grand-oncle Jean.

Dans cet article, on trouvera une description du basque de Géronce. Comme je ne suis pas linguiste, j'ai classé les informations à ma manière, en espérant qu'elles donneront un bon aperçu de la langue: situation en général, phonétique, déclinaison, verbe, structures grammaticales et lexique. Tous les exemples –en italique– sont authentiques.

ABSTRACT

The non-transmission of the Basque language to modern generations in Iparralde (Northern Basque Country) is an all-too-well-known fact, which can be observed throughout most of the historical territory. The scale of the problem is even greater in peripheral areas, where even the very Basqueness of a Basque-speaking territory beyond the Basque Country could be questioned. Such is the case in Béarn in the Basque village of Géronce, where the phenomenon has seen itself exasperated by rural emigration.

My family, originally from the village of Géronce, has proved no exception. Personally, and given the fact that I was brought up outside of the Basque Country, I began to learn Basque quite late in life as a teenager. What is more, the dialect I came into contact with was the Navarran-Labourde form, or "manech", as we normally say in my family. Nevertheless, I had the chance to "retrieve" the language of Soule later on thanks to members of my family, and above all my great-uncle Juan.

The present article tries to describe the Basque language used in G ronce. By no means a linguist and in the hope that a decent impression of the language may be gleaned, I have classified the information according to my own criteria: general situation, phonetics, declensions, verbs, grammatical structures and lexicon. All of the examples appearing in italics are authentic.